



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2023ko martxoaren 20a

45. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—10-20/CCO-00005. 2014tik 2021era bitarte itzaleko bidesariaren bidez eginiko emakidei buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egin (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

10-20/CCO-00005. 2014tik 2021era bitarte itzaleko bidesariaren bidez eginiko emakidei buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 20an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak 2014tik 2021era bitarte itzaleko bidesariaren bidez eginiko emakidei buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Adieraztea 2014tik 2021era bitarte itzaleko bidesariaren bidez eginiko emakidei buruzko fiskalizazio-txostenaren edukiaren jakinaren gainean dagoela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

2014tik 2021era bitarte itzaleko bidesariaren bidez eginiko emakidei buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

Laburdurak (3. or.).

I. Sarrera (4. or.).

II. Helburuak, norainokoa eta mugak (5. or.).

III. Konklusioak eta gomendioak (6. or.).

IV. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren erantzukizuna (9. or.).

V. Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna (9. or.).

1. gehigarria: Itzaleko bidesariaren bitartez finantzatzen diren Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren azpiegiturak (10. or.).

1.1. Itzaleko bidesariaren formula (10. or.).

1.2. Autobiak (11. or.).

1.3. Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriak (14. or.).

2. gehigarria: Fiskalizazioaren oharra eta aurkuntzak (18. or.).

2.1. Autobiak (18. or.).

2.2. Nafarroako Ubidea (24. or.).

2.3. Itzaleko bidesariari buruzko ekonomia-eta ondare-informazioa (32. or.).

2.4. Aurrekontu-egonkortasuna eta itzaleko bidesariak defizitean duen eragina (33. or.).

3. gehigarria. Aplikatzekoa den esparru juridikoa (35. or.).

LABURDURAK

NFKA Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa
AGBAR Sociedad General de Aguas de Barcelona SA
AGUACANAL Sociedad Concesionaria de la zona regable del Canal de Navarra SA
EK Eskari-kanona
GKB Gordailu kontu berezia
EZKK Azpiegituraren egoeraren eta zerbitzuaren kalitatearen kanona
AKKK Azpiegituraren kudeaketaren kalitate-kanona
UE Ureztapen sektoreetako ureztatzaile elkarteak
UBK Ur bolumenaren eskariaren kanona
UK Ustiapen kanona
LGID Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua
EUROSTAT Europako Erkidegoko Estatistika Bulegoa
KPI Kontsumoko prezioen indizea
INTIA Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias
PEF Plan ekonomiko-finantzarioa
OIAPA Obra eta instalazioen amaierako prezio aitortua
OOAPA Obra osoen amaierako prezio aitortua
KSE Kontuen Sistema Europarra
AG Auzitegi Gorena
NJAN Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusia
GOB Guztizko ordainsari bakarra

I. SARRERA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, Geroa Bai talde parlamentarioak eskaturik, erabaki zuen Kontuen Ganberari eskatzea fiskalizazio txosten bat egin zezala gai honi buruz: *“Donejakue Bideko autobian, Pirinioetako Autobian eta Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarrietan itzaleko bidetariaren bitartez emandako kontzesioen egoera”*. Kontuen Ganberak, bera arautzen duen foru legegari jarraituz, lan hori sartu zuen bere fiskalizazio programan.

Azterketa lana 2022an egin du auditoretzako bi teknikarik eta auditore batek osatutako lantaldeak. Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen lankidetzaren ere izan dute.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak ematen dizkiegu Lurralde Kohesiorako Departamentuko, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko (hemendik aurrera LGID) langileei eta “Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias SA” (hemendik aurrera INTIA) sozietate publikokoei.

Jarduketa honen emaitzak Nafarroako Gobernuo Ekonomia eta Ogasuneko, Lurralde Kohesiorako eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko departamentuetako kontseilariei eta INTIAko zuzendari kudeatzaileari helarazi zitzaizkien, egokitzat jotzen zituzten alegazioak egin zitzaizkion, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz. Ezarritako epea igarota, ez da alegaziorik aurkeztu.

Kanpo kontroleko organoen auditoretzari buruzko araudiaren azken aldaketaren ondorioz, txosten hau eta aurretik egindako txostenak desberdinak dira egituraren zenbait alderditan.

Txosten honetako datu ekonomiko guztiak eurotan eman dira, biribilduta, zentimorik ez agertzeko. Emandako datuek eta ehunekoek beti adierazten dute balio zehatz bakoitza biribilduta, eta ez biribildutako datuen batura.

II. HELBURUAK, NORAINOKOA ETA MUGAK

Parlamentutik jasotako eskaera kontuan hartuta, honako hauek izan dira lan honen helburuak:

- Itzaleko bidesariaren araubidean Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak (hemendik aurrera NFKA) obra publikoetarako emandako kontzesioen egoera aztertzea.
- NFKAk kontzesioei egindako kontrola egiaztatzea.
- Kontzesio horiek Nafarroako Kontu Orokorretan nola islatu diren aztertzea, eta nola eragin duten zorretan eta etorkizuneko aurrekontuetan.

2014ko abenduan Ganbera honek "Itzaleko bidesaria" izeneko txostena argitaratu zuen. Bertan itzaleko bidesariaren bidezko kontzesioen egoera aztertu zen haien jarduera hasi zenetik 2013. urtearen amaierara arte.

Denborari dagokionez, gure lanean 2014-2021 aldia aztertu dugu. Gastuaren ikuspegi osoa eskaintzeko, kontzesioa hasi zenetik aitortu diren betebeharrak guztiei buruzko informazioa ematen da.

Informazio hau aztertu dugu:

- Kontzesio-kontratuak eta geroko aldaketak.
- Kanonaren ordainketen eta berronkatze ekonomikoen espedienteak.
- Itzaleko bidesariarekin loturiko kontzeptuei dagokien aurrekontu-exekuzioa.
- Kontzesioen plan ekonomiko-finantzarioak.
- Trafikoaren kontrolari eta kontsumitutako ur bolumenari buruzko datuak.
- Autobietako sozietate kontzesiodunen finantza-auditoretzako txostenak, onetsitako azken ekitaldira (2021) artekoak.
- Nafarroako Ubideko sozietate kontzesiodunen finantza-auditoretzako txostenak, onetsitako azken ekitaldira (2021) artekoak.

Lana egin bitartean muga hauek aurkitu ditugu:

- Nafarroako Ubidearen lehen fasearen zabalpena ustiapen partzialeko laugarren urtean dagoelarik, oraindik ere exekutatu gabe daude zenbait ureztapen eremu edo sektore. Hori dela-eta, ez dakigu zein diren obraren amaierako kostuaren zenbatekoak.

Gure lanaren norainokoa mugatu ez badu ere, honako hau adierazi nahi dugu: zenbait klausula betetzeari buruzko konklusioak eman diguten dokumentazio teknikoan oinarrituta daude.

Bestalde, etorkizuneko ekitaldietan izanen den eraginaren zenbatespenak aldagai batzuen bilakaerari buruzko hipotesietan oinarrituta daude, hala nola KPIaren, maileguetako interes tasen, autobietako trafikoaren edo ureztatze ur bolumenaren bilakaeran. Horregatik, ezin da balio zehatzik eman.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia eskaintzen du konklusioa lortu ahal izateko aztertutako aldiaren itzaleko bidesariaren bitartez emandako kontzesioen egoerari buruz.

III. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK

NFKAk itzaleko bidesariaren bidezko kontzesio publikoaren kontratuaren figura erabili du Donejakue Bideko autobia eta Pirinioetako Autobia eraiki, kontserbatu eta ustiatzeko, bai eta Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarria ere (lehen fasea eta lehen fasearen zabalpena). Azpiegitura horietatik eraikuntza fasean jarraitzen duen bakarra Ubidearen lehen fasearen zabalpena da.

Aztertutako informazioaren arabera, honako taula honetan ageri da onetsitako obra amaierako guztizko prezioa edo guztizko aurrekontu zenbatetsia, kasuan kasukoa, azpiegituretako bakoitzerako:

Kontzeptua	(Milakoak)	
	Onetsitako obra amaierako prezioa / Obraren aurrekontu zenbatetsia (*)	
Donejakue Bideko autobia		389.850
Pirinioetako Autobia (*)		271.385
Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriak (1. fasea)		169.877
Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriak. 1. fasearen zabalpena (*) (eraikitzen)		157.781

(*) Obraren aurrekontu zenbatetsia.

Itzaleko bidesariarekin zerikusia duen gastu osoak barnean hartzen ditu, azpiegiturearen eraikuntzaz gain, finantza-gastuak eta azpiegitura kontserbatu eta mantentzeko gastuak.

Kontzesio-kontratuekin loturik Nafarroako aurrekontu orokorretan aitortutako gastua, kontzesioak hasi zirenetik 2021eko abenduaren 31ra arte, 969 milioikoa da, honela xehakatuta:

Kontzeptua	(Milakoak)	
	Gastua, guztira, NGren aurrekontuan	
Donejakue Bideko autobia		603.653
Pirinioetako Autobia		160.100
Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriak (1. fasea)		169.721
Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriak. 1. fasearen zabalpena		35.394
Guztira		968.868

Fiskalizaziopeko kontzesioen kudeaketari buruz egindako azterketatik konklusio hauek atera ditugu:

Autobiak

2014az geroztik NFKAk ez du inor izendatu autobietako bi sozietate kontzesiodunetako batean ere Gobernuaren ordezkari postua betetzeko, nahiz eta figura hori kontzesio-kontratuetan aurreikusten den, kontzesioaren finantza alderdiak kontrolatzeko.

Sozietate kontzesiodunen kapital soziala ordezkatzan duten akzioen eskualdaketak kontzesio-kontratuan ezarri bezala jakinarazi dira, edo baimendu, Pirinioetako Autobiaren kasuan. 2021eko abenduaren 31n bi sozietate kontzesiodunak pertsona bakarreko sozietateak ziren.

NFKAk kontzesio-kontratuetan ezartzen du zenbat ordainduko den, gehienez ere, trafikoak zerbitzu maila jakin batzuk gaintzen baditu. Ez dira gaintu maila horiek, eta, beraz ez da aplikatu muga hori.

Benetako trafikoa finantza-ereduetan zenbatetsitakoa baino txikiagoa izan da. Sortutako urteko kanonaren eta aurreikusitakoaren arteko alde nagusiak trafiko maila apalagoen ondorio dira. Donejakue Bideko autobian, sortutako kanona aurreikusitakoa baino ehuneko 20 txikiagoa izan da, eta Pirinioetako Autobian, sortutako kanona aurreikusitakoa baino ehuneko 42 txikiagoa. Azken autobia horretan aldea nabarmenagoa da Pirinioetako igarobidea irekitzeko atzerapena dela-eta.

Ez da aurreikusitako kalitate-estandarren atalaseen ez-betetze adierazgarririk izan. Horregatik, autobietako kontzesio-kontratuak zigor ekonomikoak, 300.000 eurokoak guztira, ez dira esanguratsuak izan guztizko kanonarekin alderatuta.

Autobietako sozietate kontzesiodunek kontzesioa berrorekatzeko eskaera bana aurkeztu dute COVID-19aren pandemiak eragindako osasun krisiaren ondoriozko galerengatik, izan ere 2020an mugikortasunaren murrizketek zuzeneko eragina izan baitzuten trafikoan. NFKAK bi eskaerak ezetsi zituen eta kontzesiodunek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuten Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusian (NJAN). Autovía del Pirineo SAUren errekurtsoa ezetsi egin du NJANek, ez duelako egiaztatutzat jo 30 urteko kontzesio-kontratuaren oreka hautsi denik; sozietate kontzesiodunak ez du kasazio errekurtsorik jarri, eta epaia irmoa dela deklaratu da. Autovía del Camino SAUren errekurtsoa 2022ko maiatzaren 20koa da, eta epaiaren zain dago.

Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarria

INTIAk ikuskatu, zaindu eta kontrolatu behar du Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarrietako kontzesiodun diren sozietateek betebeharrak betetzen ote dituzten, bai eraikuntza fasean, baita ustiapen fasean ere.

Nafarroako Gobernuak sozietate kontzesiodunetan duen ordezkaria administrazio kontseiluen bileretara eta kontzesioaren jarraipenerako batzorde mistoaren bileretara joaten da.

Sozietate kontzesiodunen akzioen salerosketen aurretik jakinarazpena egiten zaio, edo baimena eskatzen, kasua bada, INTIAko betearazpen batzordeari, kontratuan ezarritakoarekin bat etorritz.

Benetan kontsumitutako ur bolumena finantza-ereduetan jasotako kontsumo-zenbatespenak baino txikiagoa izan zen. Sortutako urteko kanonaren eta aurreikusitakoaren arteko alde nagusiak ur bolumen txikiagoa kontsumitzearen ondorio dira. Nafarroako Ubidearen lehen fasean, batera sortutako kanona aurreikusitakoa baino ehuneko 18 txikiagoa izan da; lehen fasearen zabalpenean sortutako kanona, berriz, aurreikusitakoa baino ehuneko 68 txikiagoa. Azken azpiegitura horretan aldea nabarmenagoa da obraren amaiera atzeratu egin delako.

Autobietako kontzesioetan bezala, ez da kalitate atalaseen ez-betetze nabarmenik izan. Beraz, ez-betetzeengatik kendutako zenbatekoa (13.000 euro) ez da esanguratsua guztizko kanonaren aldean.

Ubidearen lehen faseko azalera ureztagarri garbia 22.398 hektareakoa zen 2021ean, eta hektarea horietatik ehuneko 91tan zegoen instalaturik ureztapena.

Oraindik ez da amaitu Nafarroako Ubidearen lehen fasearen zabalpena, 2023aren amaieran amaitzekoa baita. Obraren atzerapenen ondorioz, ustiapen aldia laburragoa da.

Lehen fasearen zabalpeneko kontzesio-kontratuaren bost berrorekatze onetsi dira fiskalizatutako aldiaren ondorioak sortzen dituztenak. Kontratuaren oreka ekonomiko-finantzarioaren berrezarpenek plan ekonomiko-finantzarioa (PEF) berrikusteko eta eguneratzeko bidea eman dute, inguruabar berrietara egokitze aldera. Berrorekatze horien eragin garbiak ehuneko 49,41eko igoera ekarri du eskaintako tarifetan.

Lehen fasearen zabalpenean 2021eko abenduaren 31n ustiatzen ari zen azalera 8.097 hektareakoa zen guztira, hau da, hasieran aurreikusitako 15.275 hektareako azalaren ehuneko 53. Berrorekatzeen ondoren, aurreikusitako hektareak 12.989ra murriztu dira.

Kontratu hauek, beren konplexutasun teknikoarengatik, modu berezian prestatu eta lizitatu behar dira, eta gero Administrazioak kontrolatu egin behar ditu. Finantza-eredua –zeina kontzesio-kontratuaren parte den eta berrorekatzeen bidez plan ekonomiko-finantzarioa eguneratzeko oinarritzat hartzen den– oso konplexua da, eta laguntza teknikoak kontratuak egin behar izan dira arlo ekonomiko-finantzarioko aholkularitzarako.

Itzaleko bidesariaren isla Nafarroako Kontu Orokorretan

Nafarroako Kontu Orokorren barneko oroitidazkiak zehazten du zer ordainketa-fluxu aurreikusten ahal diren "Itzaleko bidesaria" izeneko atalean. Etorkizuneko gastuari buruzko aurreikuspen horiek kontabilitatean pasibo kontingentetzat jotzen dira, eta haien gaineko informazioa eman behar da kontuetako oroitidazkian.

Funtsezkoa da kontuetako oroitidazkian kontzesio-kontratu hauen gaineko informazioa jasotzea, bereziki kontzesio bakoitzari buruzkoa: kontzesioaren deskribapena, haren baldintza garrantzitsuak (zenbatekoak, epeak...), kanona dela-eta egindako ordainketak, aurreikusten diren etorkizuneko gastuak, ekonomia- eta ondare-oreka berrezartzeko espedienteak etab.

Kontzesio-kontratuak luzeak direnez, epe luzerako aurreikuspenak egin behar dira, eta gerta liteke plan ekonomiko-finantzarioetan jasotako hipotesiak, gertaerak eta inguruabarrak bitarte horretan aldatzea. Nafarroako Kontu Orokorretan urte anitzeko eraginari buruz azaltzen diren aurreikuspenak 1.643 milioi euro korrontekoak dira 2021eko abenduaren 31n; hala ere, zenbatespen horiek ez dira kalkulu eguneratu baten arabera prestatu.

Eragiketa horien kontabilizazio eta finantza-informazio egokiek aukera emanen lukete etorkizuneko jarduketan aurreikuspenetan kontabilitateko informaziotik ateratako datu ekonomiko-finantzarioak erabiltzeko.

Arestian aipatutako kontabilitateko tratamendutik bereiz, kontabilitate nazionalen desberdinak dira aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren ondorioetarako defizita eta zorra kalkulatzeko printzipio edo irizpideak.

Hala, formula hau erabiltzea eragin duten helburuetako bat izan da kontabilitate nazionalaren esparruan eragiketa horien tratamendua egitea. Aztertutako kontzesioek, ordea, ez dute tratamendu berdina izan esparru horretan. Ez dago analisirik Estatuko agintaritzaren eskudunak¹ kontratuak kontabilitate nazionalaren ondorioetarako sailkatzeko erabiltzeko arriskuen transferentziari buruzko irizpidearen interpretazioaz, ezta organo horren dokumenturik ere kontu nazionalerako tratamendu desberdina justifikatzen duenik.

Atera ditugun konklusioak kontuan hartuz, bada, *aholku* hauek ematen ditugu:

- *Aurretiaz bideragarritasun azterketa osoak egitea, finantzaketarako aukera publikoen eta publiko-pribatuen berri jasoz eta egindako proposamena justifikatuz.*
- *Planifikatzea, etorkizuneko kontratuei begira, plan ekonomiko-finantzario egiaztatzen errazak prestatuko direla, haien balidazioa kanpoan egin behar ez izateko.*
- *Adjudikazio bakoitzaren aurretik organo eskudunari eskatzea azpiegiturari eman beharreko tratamendua, defizitaren eta zorraren ondorioetarako.*
- *Autobietako sozietate kontzesiodunetan Gobernuaren ordezkaria izendatzea, kontzesioaren finantza alderdiak hobeki kontrolatzeko.*
- *Nafarroako Kontu Orokorretako oroitidazkian kontzesio-kontratu bakoitzerako informazioa jar-tzea, egindako ordainketei, aurreikusten diren etorkizuneko gastuei, ekonomia- eta ondare-oreka berrezartzeko espedientei eta abarri buruzkoak, gardentasun handiagoa lortzeko aurrekontu-informazioan.*
- *Etorkizuneko gastu konpromisoak egokiro eta irizpide homogeenarekin erregistratzea, egungo balioaren arabera, termino konstanteetan.*

¹ 2013az geroztik, Kontu Nazionalen Batzorde Teknikoa.

IV. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAREN ERANTZUKIZUNA

Lurralde Kohesiorako Departamentua, Ekonomia eta Ogasuneko Departamentua, LGID eta INTIA sozietate publikoa dira itzaleko bidesariaren bitartez emandako kontzesioen kudeaketaren arduradunak.

Departamentu horiek eta sozietate publikoak bermatu behar dute egindako kudeaketa-jarduerak eta -eragiketak bat datozela aplikatzekoak diren arauekin, eta behar diren mekanismoak ezarri behar dituzte proposatutako helburuak eraginkorrak izan daitezen eta helburu horiek lortzeko baliabide publikoak efizientziaz eta ekonomiaz erabil daitezen, horretarako beharrezkotzat jotzen dituzten barne-kontrolako sistemak ezarriz.

V. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure ardura da gure fiskalizazioan oinarritutako konklusioak azaltzea kontzesioen 2014tik 2021era arteko kudeaketari buruz, kontzesio-kontratuetan ezarritako klausulak betetzeari buruz eta kontzesio horien egungo kudeaketari buruz.

Horretarako, fiskalizazio hori egin dugu Kanpo Kontrolako Erakunde Publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera, eta zehazki ISSAI-ES 300 araua –fiskalizazio operatiboei buruzkoa– aplikatu dugu. Printzipio eta gidalerro horiek behartzen gaituzte etikaren arloko eskakizunak betetzera eta fiskalizazioa halako moduz planifikatu eta egitera non ezagutza egokia lortuko baitugu kontzesioen kudeaketan erabilitako prozedurez, bai eta taxuzko ziurtasun bat ere, informazioa oker materialik gabekoa eta alderdi adierazgarri guztietan araudi indardunaren arabekoa izateari buruz.

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Begoña Herrera Isasi andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2023ko otsailaren 13an

(Ignacio Cabeza del Salvador Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak digitalki sinatua)

1. GEHIGARRIA: ITZALEKO BIDESARIAREN BITARTEZ FINANTZATZEN DIREN NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAREN AZPIEGITURAK

1.1. ITZALEKO BIDESARIAREN FORMULA

“Itzaleko bidesaria” deritzona lankidetzara publiko-privaturako formula bat da. Obra publikoaren kontzesiorako epe luzeko kontratua du oinarrian, sektore publikoaren eta sektore pribatuaren artekoa, non azken horrek azpiegitura bat eraikitzen, finantzatzen eta ustiatzen baitu. Sektore publikoak azpiegituraren erabiltzaile kopuruaren arabera ordainsaria ordaintzen du, eta, maiz, ordainsaria doitu egiten da, mantentzearen kalitatearen arabera hobariak edo zigorrak ezartzeko. Azken batean, ordainketak erabilerari eta emandako zerbitzuaren kalitateari lotuta daude. Kontzesio aldia amaitzen denean, obra publikoa Administrazioaren esku gelditzen da.

Sistema horrek finantzaketa iturri garrantzitsua eskaintzen du azpiegitura proiektu handiei ekin ahal izateko eta aurrekontu murrizketak gainditzeko, kostua geroraturik. Nahiz eta epe laburreko zorpetzearen eta defizitaren gaineko eragina apalagoa izan, etorkizuneko aurrekontuak baldintzatuko dituzten betebeharrak onartzen dira.

Arriskuen transferentzia funtsezko elementua da kontratuaren kostua erakargarria izan dadin aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren printzipioak betetzearen ikuspuntutik.

Jarduketa horietan, Europako Erkidegoko Estatistika Bulegoak (hemendik aurrera Eurostat) hiru arrisku kategoria nagusi ezarri ditu:

- Eraikuntzatik heldu diren arriskuak; besteak beste, atzerapenek, gainkostuek, urritasun teknikoek... sortuak.
- Erabilgarritasunaren arriskuak; esate baterako, eskatutako bolumena ezin hornitu ahal izatea edo azpiegiturak araudiak edo kontratuak berak eskatutako kalitate-maila ezin lortu ahal izatea.
- Eskariaren arriskuak; esate baterako, azpiegituraren erabileraren arabera sortzen direnak, aldaketa ezin zaionean egotzi entitatearen kudeaketari.

Kontabilitate nazionalaren ondorioetarako, eta Kontuen Sistema Europarraren (KSE 2010) eta Eurostaten irizpide eta arauekin bat etorriz, azpiegituraren egindako inbertsioaren gutzizko balioa defizit eta zorpetze publikoaren ondorioetarako kontuan ez hartzeko, ezinbestekoa da kontzesiodunari transferitza eraikuntzatik heldu den arriskua eta diru-sarrerak lortzeari dagokien arriskuetatik bat, gutxienez (erabilgarritasuna edo eskaria).

Kontabilitate nazionalaren arloan eskumena duten erakundeak Estatistikako Institutu Nazionala, Estatuko Kontu-hartzaitza Nagusia eta Espainiako Bankua dira.

Halaber, Erantzukizun Fiskaleko Agintaritza Independentea sortzen duen azaroaren 14ko 6/2013 Lege Organikoaren lehen xedapen gehigarriak Kontu Nazionalen Batzorde Teknikoa sortu zuen. Aurreko hiru erakunde horien ordezkariak osatzen dute, eta haren eginkizuna da sektore publikoko unitateek egindako eragiketa ekonomikoak baloratu eta egozte KSE 2010 sistemaren ezarritako irizpideen arabera.

Gaur egun Nafarroan badira hiru azpiegitura itzaleko ordainsariaren araubideko kontzesioen bidez eraikiak eta araubide horretan ustiatzen direnak. Taula honetan laburbilduta azaltzen da txostenaren datan haiek duten egoera:

Azpiegitura	Kontratuaren data	Ustiapenaren hasiera partzialaren data	Aurreikusitako amaiera data	Igaro diren ustiapen urteak
Donejakue Bideko autobia	2002/09/24	2007/01/01	2032*	15
Pirinioetako Autobia	2009/07/31	2012/01/15	2039	10
Ubidearen eremu ureztagarriak:				
Ubidearen 1. fasea	2006/09/26	2006/12/19	2036	16
1. fasearen zabalpena	2014/05/21	2017/03/22	2044	5

*Gehieneko epea; kontzesioaren epea laburtu egin daiteke finantza planaren exekuzioaren arabera.

Ustiapena ez da amaitu oraindik, eta kontzesio guztietan epea 30 urtekoa da kontratuaren datatik hasita.

Jarraian, azpiegitura horien nondik-norako nagusiak ezagutu ahal izateko datuak eta informazioak aurkezten ditugu.

1.2. AUTOBIAK

1.2.1. Donejakue Bideko autobia

2002ko irailaren 24an kontzesio-kontratua sinatu zuten Autovía del Camino SAK eta NFKAk. Autobien eraikuntza, ustiapena eta kontserbazioa kontratatu ziren, guztira 70 kilometrorako. Kontzesioaren epea 30 urtekoa da. Hala ere, plan ekonomiko-finantzarioaren exekuzioa kontuan izanda epe horren amaiera aurreratu ahal da, besteren finantzaketaren amortizazio osoa eta hari lotutako gastuak ordainduta.

Iruña-Logroño edukiera handiko errepidea eraiki, ustiatu eta finantzatzeari buruzko urriaren 18ko 21/2001 Foru Legean erabaki zen kontzesioaren formula erabiltzea.

Sozietate kontzesioduna 2002ko irailean eratu zen. Honako enpresa hauek osatzen zuten: Grupo Corporativo Empresarial de la Caja de Ahorros y Monte de Piedad Navarra SA Sociedad Unipersonal, FCC Construcción SA eta NEC Navarra Empresas de Construcción SA.

Autobidea ustiatzeko fasea 2007ko urtarrilaren 1ean hasi zen. Herri Lanetako kontseilariaren urtarilaren 30eko 7/2008 Foru Aginduak obra eta instalazioen amaierako prezio aitortua (OIAPA) onetsi zuen behin betiko, 389,85 milioi, bai eta prezio hori tarifen zenbatekoan nola jasanarazi ere.

Kontratuan ordainsari (kanon) hau ezarri zen kontzesiodunarentzat:

- Eskari-kanona (EK). Kanon hau kalkulatzeko erabiltzen diren aldagaiak dira ibilgailuen eta egindako kilometroen kopurua, ibilgailuen kategoria (astuna edo arina), eta ibilgailu mota bakoitzari kilometroko aplikatu beharreko tarifak.
- Kontserbazio-gehigarriaren eskari-kanona. Kanon hau kalkulatzeko, kontserbazio lanak direla-eta, kontserbazio-gehigarriaren tarifak aplikatzen zaizkie ibilgailuei, ibilgailu mota bakoitzak urtean egindako kilometroen arabera. Tarifa horiek kontratuaren eranskin batean ezarri ziren 2005ean. Hasi-erata batean Administrazioari zegozkion neguko lanak, lorezaintzakoak, ingurumena babestekoak eta argiztapenekoak.

Aurreikusita dago, kontratuaren arabera, kanonari indize zuzentzaile bat aplikatzea baldin eta trafikoak gainditzen baditu ezarritako zerbitzu mailak². 2007-2021 ustiapen aldian ez da behin ere zuzenketarik aplikatu, ez delako gainditu maila hori.

8/2008 Foru Aginduaren bidez behin betiko tarifa unitarioak eta kontserbazio-gehigarriaren tarifak ezarri ziren 2007rako. Tarifak urtero eguneratzen dira Estatuko KPIaren arabera.

Eskari-kanonaren tarifak (2007ko balioa)

Ibilgailuak	Euroak/km (BEZik gabe)
Arinak	0,0792
Astunak	0,1069

Kontserbazio-gehigarriaren tarifak (2007ko balioa)

Ibilgailuak	Euroak (BEZik gabe)
Arinak	0,00486
Astunak	0,00656

² Trafiko-tarte jakin bateko kanonaren urteko zenbateko osoa zuzendu daiteke baldin eta kilometroko eta urteko ibilgailu kopuruak zerbitzu maila jakin batzuk gainditzen baditu.

24/2009 Foru Aginduaren bidez plan ekonomiko-finantzarioa onetsi zen obren amaierari egokituta. Plan hori aztertzeke enpresa aditu baten laguntza teknikoa kontratatu zen. Enpresa horren iritzi, plan ekonomiko-finantzarioa bat dator kontzesio-kontratuan ezarritakoarekin.

Hona hemen Autovía del Camino SAren akzio-egiturak 2014-2021 aldian izandako bilakaera, kapital sozialaren gaineko portzentajeetan:

Akzio-egitura	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Infrastructure Panther 1 BV	80	80	100	0	0	0	0	0
Hiscan Patrimonio SAU (Caixabank taldea)	11	11	0	0	0	0	0	0
Global Vía Infraestructuras SA	9	9	0	0	0	0	0	0
Galvantula SLU	0	0	0	100	100	100	100	100
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: sozietate kontzesiodunaren urteko kontuak.

2016ko otsailean, Autovía del Camino SAko akziodunen arteko akordio baten bidez, Infrastructure Panther akziodun gehiengodunari eskualdatu zitzaizkion gainerako akzioak, eta hala sozietate kontzesioduna pertsona bakarreko sozietate bihurtu zen. 2017ko ekainean, Galvantula SLU sozietatea, akzioen salerosketako kontratu baten bidez, sozietateko akziodun bakarra bihurtu zen. Kontzesiodunak epean jakinarazi zion NFKAri akzioen eskualdaketa, kontratuan ezarrita zegoen bezala.

NFKAk Donejakue Bideko autobia kanona dela-eta 604 milioi ordaindu ditu 2007an ustiapena hasi zenetik 2021era arte.

Azpiegitura hori, Estatuko agintaritzaren eskudunak³ egindako balorazioaren arabera, betetzen ditu Eurostat-ek ezarritako betekizunak zor gisa ez konputatzeko, KSE 95en (gaur egun KSE 2010) ezarritakoaren ondo-riotarako.

1.2.2. Pirinioetako Autobia

2009ko ekainaren 31n kontzesio-kontratu sinatu zuten Autovía del Pirineo SA sozietate kontzesiodunak eta NFKAk, bi tarte berri eraikitzeke, 16 kilometro guztira, eta lehenago bikoiztutako tarteak kontserbatu eta ustiatzeko, 45 kilometro guztira. Kontzesioaren epea 30 urtekoa da.

Sozietate kontzesioduna sozietate anonimo gisa eratu zen 2009ko uztailean. Iridium Concesiones de Infraestructuras SA, Construcciones Mariezcurrena SL eta Construcciones Luciano Elcarte SL enpresek osatzen zuten sozietatea.

Autobia ustiatzeko fasea 2012ko urtarrilaren 15ean hasi zen, behin obrak amaiturik, eta urte bereko otsailaren 1ean hasi ziren sortzen kontzesiodunari ordaindu beharreko kanonak.

Kontratuak aurreikusten du tarifak berrikusi ahalko direla obra osoen amaierako prezio aitortuaren (OOAPA) arabera, hura onetsi eta gero, baina obren eraikuntza fasea amaitutakoan ez zen hura onetsi. Kontratuaren guztizko aurrekontu zenbatetsia 271,38 milioikoa da.

Ustiatu bitartean NFKAk kontzesiodunari ematen dion ordainsariak oinarri hauek ditu:

- Eskari-kanona (EK), azpiegiturak jasaten duen trafikoari lotua. Kanon hau kalkulatzeko erabiltzen diren aldagaiak dira ibilgailuen eta egindako kilometroen kopurua, ibilgailuen kategoria (astuna edo arina), eta ibilgailu mota bakoitzari kilometroko aplikatu beharreko tarifak.
- Azpiegituraren egoeraren eta zerbitzuaren kalitatearen kanona (hemendik aurrera, EZKK) Hura zehazteko aldagai hauek erabiltzen dira: kilometroko aplikatzen den tarifa, autobia kilometro kopurua, eta kenketa automatikoak, kalitatearen adierazleak onak ez direnean. Beraz, EZKK kanona urteko zenbateko finko bat da, hurrengo urtean zuzentzen dena, adierazlearen betetze maila neurtutakoan.

³ 2013az geroztik, Kontu Nazionalen Batzorde Teknikoa.

Kontratuaren arabera, aurreikusita dago eskari-kanonari indize zuzentzaile bat aplikatzea baldin eta trafikoak gaintzen badiu ezarritako mugak⁴. 2012-2021 ustiapen aldian ez da behin ere zuzenketarik aplikatu, ez delako gaintitu maila hori.

Eskaintzari dagozkion EKren eta EZKKren tarifa unitarioak (BEZik gabe) urtero eguneratzen dira Estatuko KPIaren bilakaeraren arabera.

Aplikatzekoak diren EKren tarifak	
Ibilgailuak	(euroak)(BEZik gabe)
Arinak	0,0624
Astunak	0,0842
Aplikatzekoak diren EZKKren tarifak (2012ko balioa)	
(euroak kilometroko eta urteko) (BEZik gabe)	
85.537,08	

Autobiaren luzera dela-eta, EZKK kalkulatzearen ondorioetarako, errekurtsua jarri da auzitegian. Errekurtsu horri Auzitegi Gorenaren 2017ko martxoaren 1eko epaiak eman zion amaiera. Kontzesiodunaren tesiaren alde eginez, adierazi zuen EZKK kalkulatzeko kilometroak kontzesio-kontratuan hitzartutakoak direla, hau da, 46,097 kilometro, eta ez eraikitako 45,421 kilometroak. 2017an NFKAK kontzesiodunari 400.000 euro ordaindu zizkion, kanona sortzen hasi zenetik luzeran izandako desberdintasun horrengatik.

Pirinioetako Autobiako kanona dela-eta 160 milioi ordaindu dira 2012tik, hau da, ustiapena hasi zenetik, 2021era arte.

Hona hemen Autovía del Pirineo SAUren akzio-egiturak 2014-2021 aldian izandako bilakaera, kapital sozialaren gaineko portzentajeetan:

Akzio-egitura	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
	%	%	%	%	%	%	%	%
Iridium Concec de Infr SA	72	99,999997	99,999997	99,999992	99,999992	99,999992		
Cons. Mariezcurrena SL	20							
Cons. Luciano Elcarte SL	8							
Desarrollo de Concesiones Viarias Uno SL		0,000003	0,000003	0,000008	0,000008	0,000008		
Iridium Hermes Roads SL							100	100
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: sozietate kontzesiodunen urteko kontuak.

2020ko urtarrilaren 29an akziodun bakar bat jabetu zen –Iridium Hermes Roads SL– kontzesiodunaren kapital sozial osoaz⁵. Eskualdaketa hori, kontratuan ezarrita dagoen bezala, NFKAren baime-narekin egin zen, sozietate kontzesiodunaren kapitalaren ehuneko hamar baino gehiago eskualdatu baitzen.

Azpiegitura horrek, Estatuko agintaritza eskudunak egindako balorazioaren arabera, betetzen ditu Eurostatetik ezarritako betekizunak zor gisa konputatzeko, KSE 2010en ezarritakoaren ondorioetarako.

⁴ Kontzesiodunak ez du eskari-kanonik kobratuko ezarritako gehieneko mugak gaintzen dituzten ibilgailuengatik. Muga horiek, ibilgailu arinetarako, 291 milioi ibilgailu dira km-ko eta urteko, eta ibilgailu astunetarako, 36,5 milioi ibilgailu km-ko eta urteko.

⁵ 2020an Autovía del Pirineo SAko akziodunek beren partaidetza osoaren ekarpena egin zioten Iridium Hermes Roads SL sozietateari.

1.2.3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bi autobiak kontrolatzeko daukan antolaketaren egitura.

Bi autobietako kontzesio-kontratuaren eta baldintza-agirietan kontrol organo hauek ezarrita daude: ustiapenerako zuzendaria, alderdi teknikoetarako (Lurralde Kohesiorako Departamentuko funtzionario bat da), eta Gobernuak sozietate kontzesioduneari daukan ordezkaria, finantza alderdietarako.

NFKAn Lurralde Kohesiorako Departamentuari dagokio obra publikoen kontzesiorako bi kontratu horiek kudeatzea; zehazki, bi zerbitzuri:

- Zainketa Zerbitzua, Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiaren menpekoa. Zainketa Zerbitzuko zuzendaria da ustiapenerako zuzendaria, hau da, autobia ustiatzeko fasean zerbitzua eta kontserbazioa egokiak diren zaintzen duena.

- Ekonomia eta Aurrekontu Kudeaketarako eta Gastuaren Kontrolerako Zerbitzua Haren eginkizunetako bat da kontzesioen jarraipen ekonomiko-finantzarioa egitea departamentuko zerbitzu teknikoekin elkarlanean.

Gobernuaren ordezkariak sozietate kontzesiodunen administrazio kontseiluen bileretan parte hartzeko eskubidea du. Sozietate kontzesiodunen finantza-auditoretzetako txostenak hari aurkeztu behar zaizkio. Sozietate kontzesiodunetan ez dago Gobernuaren ordezkariarik aurrekoak 2014an erretiroa hartu zuenetik.

1.3. NAFARROAKO UBIDEAREN EREMU UREZTAGARRIAK

Nafarroako Ubidearen kontratazioa eta ustiapena obra publikoetarako kontzesio-kontratuaren bitartezkoak dira.

Nafarroako Ubideak ureztatuko duen eremuko interes orokorreko azpiegituren eraikuntzari eta ustiapenerari buruzko azaroaren 22ko 12/2005 Foru Legeak ezartzen duenez, INTIA sozietate publikoak eman behar du obraren kontzesioa. Kontzesioaren ustiapen-zuzendaritza eta jarraipen ekonomiko-finantzarioa sozietate publiko horri dagozkie. NFKaren eta INTIaren arteko harremanak antolatzeko lankidetzaren hitzarmenak sinatu ziren 2006an eta 2013an, hurrenez hurren lehen faseko eta lehen fasearen zabalpenerako. Bi hitzarmenetan aurreikusten da Gobernuak sozietate kontzesioduneari izanen duen ordezkaria izendatzea Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposatuta.

NFKAn, Nafarroako Ubidea eraikitzeko eta ustiatzeko obra publikoen kontzesiorako bi kontratuaren kudeaketa hasieratik egokitu zaio Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuari. Departamentu horretako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza Nagusiaren menpeko Nekazaritzako Azpiegituren Zerbitzuak egikaritzen du eskumena.

Nafarroako Gobernuaren 2019ko urriaren 23ko Erabakiaren bitartez onetsi zen Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuak Lurralde Kohesiorako Departamentua eskuordetzea, lehen fasearen zabalpenerako kontzesio-kontratuaren NFKAk dituen eskumenak egikaritu zitzaizkion. Zehazki, Lurralde Kohesiorako Departamentuko Herri Lan Zuzendaritza Nagusiaren menpeko Azpiegitura Berrien Zerbitzuak egikaritzen ditu eskumenak.

Lehen fasea

Nafarroako Ubidearen lehen faseko eremu ureztagarriko interes orokorreko azpiegiturak eraiki eta ustiatzeko obra publikoen kontzesiorako kontratua 2006ko irailean sinatu zen 30 urteko eperako, eraikuntza aldia barne.

Eremu ureztagarriak 15 ureztapen-sektore edo -eremu ditu, eta hasierako aurreikuspenaren arabera 23.610 hektarea ureztaluru hartzen ditu.

Sociedad Concesionaria de la Zona Regable del Canal de Navarra SA (hemendik aurrera AGUA-CANAL) sozietate anonimo gisa eratu zen 2006ko irailean.

Kontzesiodunak, 12/2005 Foru Legeak ezartzen duenez, bere gain hartzen ditu eraikuntzaren arriskua, eremu ureztagarriko eskariarena eta azpiegitura erabili ahal izateko baldintza egokiei eustearena.

Lehen faseko inbertsioaren guztizko aurrekontu zenbatetsia 172 milioikoa da. Ureztapen sektore guztietako OIAPAen batura 169,88 milioi da. Zenbateko horien barruan daude exekuzio materialaren

aurrekontua gehi gastu orokorren eta mozkin industrialaren ehuneko 15a, BEZa eta kontzesiodunaren kargurako gastuen ehuneko zortzia.

Kontzesiodunaren ordainsariak osagai hauek ditu:

- Eskari-kanona (EK) biderkadura hau da: tarifa unitarioa, ureztatzaile elkarte (UE) bakoitzaren⁶ kontsumo mailaren arabera zuzenduta, bider UE bakoitzak kontsumitutako metro kubikoen guztizko kopurua.

- Kalitate-kanona (AKKK): sektore bakoitzean ureztatutako hektarea kopuru garbiaren arabera kalkulatu da. Kenketa automatikoak aplikatuko dira baldin eta azpiegituraren baliagarritasuna kontratua definitutako estandar egokien azpitik badago.

- Ustiapen-kanona. Kontzesiodunak ureztatzaile elkartearengandik ustiapen-kanona jasotzen du, obra publikoaren ustiapen gastuen urteroko ordainketa gisa.

Sektoreak 2006tik 2011ra bitartean eraiki ziren, eta denak 2012az gozotik ustiatzen dira.

Adjudikaziodunak eskaintzan aurkeztutako eredu ekonomiko-finantzarioa bera da kontratuaren plan ekonomiko-finantzarioa; 2008tik 2011ra bitartean egindako lau berrerekatzen balioekin eguneratu da, kontratua eraldaketaren benetako neurrietara doitzearen ondorioz, honako hauei dagokienez: obra amaierako zenbatekoak, behin betiko sartutako hektareak, sektore bakoitza ureztatzen hasteko behin betiko datak, eta abar. Azken berrerekatzea 2011ko abenduaren 31n onetsi zen, eta, beraz, hartatik eratorritako plan ekonomiko-finantzarioa dago indarrean.

EKren eta AKKKren 2006ko tarifa unitarioak, eskaintzari dagozkionak (BEZik gabe), egindako lau berrerekatzeen ondoriozko portzentajeekin eguneratzen dira.

Kanona	Neurketa unitatea	2006ko oinarrizko tarifa unitarioa	2006ko oinarrizko tarifa unitarioa, berrerekatzeen ondorioz eguneratua
Eskari-kanona	(euro/m ³)	0,0446	0,0565
Kalitate-kanona	euro/ureztatutako hektarea garbiko	202,07	255,96

Tarifak urtero eguneratzen dira Estatuko KPIaren arabera.

NFKAk Nafarroako Ubidearen lehen faseko ureztapenen kanona dela-eta 170 milioi ordaindu ditu 2007tik 2021era bitartean.

2021eko abenduaren 31n AGUACANALen kapital sozialean partaidetza duten akziodunak Impact Navarra SLU eta Sociedad General de Aguas de Barcelona SA (AGBAR) dira, eta ehuneko 50nako partaidetza dute.

⁶ Ureztapen sektore bakoitzean ureztatzaile elkarte bat dago.

Hona hemen AGUACANALen akzio-egiturak 2014-2021 aldian izandako bilakaera, kapital sozialaren gaineko portzentajeetan:

Akzio-egitura	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Grupo Corporativo Empresarial de la Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Navarra SA								
Acciona SA	35	40	45	50	50	50	50	
Befesa Constr. y Tecnología Ambiental SAU (2008an Befesa Agua SA, eta 2011n Abeinsa Infraestr. Medio Ambiente SA)	10	10	10					
Isolux Corsán Conces. SL								
Obras Espec. de Navarra SA	3,333							
Urbanizaciones Iruña SA (2008an IC Construcción, Ingeniería y Gestión de Obras SAU)								
Arian Construcción y Gestión de Infraestructuras SA	3,334							
Grupo Isolux Corsán SA	10	10						
Auna Socied. Patrimonial SL	3,333							
Soc. Gral Aguas Barcelona SA	35	40	45	50	50	50	50	50
Impact Navarra SLU								50
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100

Azpiegitura hori, Estatuko agintaritza eskudunak egindako balorazioaren arabera, betetzen ditu Eurostat-ek ezarritako betekizunak zor gisa konputatzeko, KSE 2010en ezarritakoaren ondorioetarako.

Lehen fasearen zabalpena

2014ko maiatzaren 21ean, INTIA sozietate kontzesio-emaileak eta Aguas de Navarra SA sozietate kontzesio-hartzaileak Nafarroako Ubidearen lehen fasearen zabalpeneko eremu ureztagarriko interes orokorreko azpiegiturak eraiki eta ustiatzeko obra publikoen kontzesiorako kontratua sinatu zuten.

Eremu ureztagarriak bost ureztapen-sektore ditu, eta hasierako aurreikuspenaren arabera 15.275 hektarea ureztalur hartzen ditu guztira. Sectore horiek ureztapen-eremuetan zatituta daude.

Sozietate kontzesioduna sozietate anonimo gisa eratu zen 2014ko maiatzean. Obrascón Huarte Lain SA (OHL) taldeak kontrolatzen zuen sozietate hori, ehuneko 65aren jabe zela, eta gainerako ehuneko 35aren jabea AGBAR zen.

Hona hemen Aguas de Navarra SAren akzio-egiturak 2014-2021 aldian izandako bilakaera, kapital sozialaren gaineko portzentajeetan:

Akzio-egitura	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Obrascon Huarte Lain SA	65	65	65	65	65	65	65	
Soc.Geral AguasBarcelona SA	35	35	35	35	35	35	35	50
Impact Navarra SLU								50
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100

2021eko urrian, OHLk inbertsio funts bati (Impact Navarra SLU) saldu zion bere partaidetza. Gero funts horrek ehuneko 15 saldu zion AGBARi, eta eragiketa horren ondoren 2021eko ekitaldiaren itxieran Impact Navarra SLUk eta AGBAREk ehuneko 50nako partaidetza dute sozietate kontzesioduneari.

Kontratuaren iraunaldian, sozietate kontzesiodunarentzako ordainsariak osagai bakarra du, "guztizko ordainsari bakarra" deritzona (GOB), eta hiru azpiosagai:

- Ur bolumenaren kanona (UBK). Ur kontsumoaren arabera ordaintzen da. Biderkadura hau da: tarifa unitarioa bider guztira kontsumituko ur metro kubikoak. Tarifa kontsumo-tarteen arabera aplikatzekoa izanen da.
- Azpiegituraren kudeaketaren kalitate-kanona (AKKK). Obrak baldintza tekniko eta zerbitzu-baldintza egokietan ureztatzailerik erabiltzeko prest jartzearekin zerikusia du. Ureztapen-sektoreka edo -eremuka kalkulatu da, ureztatutako hektarea kopurua eta hektarea bakoitzeko eskainitako zenbatekoa kontuan hartuta. Ureztapen-sektore edo -eremu bakoitzak bere tarifa dauka, lehen fasean ez bezala, hor tarifa bakarra baitago.

- Ustiapen-kanona. Kontzesiodunak ureztatzaile elkartearengandik ustiapen-kanona jasotzen du eremu ureztagarriko ustiapen eta mantentze gastuen urteroko ordainketa gisa.

Gutzizko aurrekontu zenbatetsia 157,78 milioioa da. Ustiatzen hasitako 11 ureztapen-sektore edo -eremuen OIAPAen batura 78,31 milioi da 2021eko abenduaren 31ra arte. Zenbateko horien barruan daude exekuzio materialaren aurrekontua gehi gastu orokorren eta mozkin industrialaren ehuneko 15a, BEZa eta kontzesiodunaren kargurako gastuen ehuneko zazpia.

Lehen fasearen zabalpena eraikitzen ari da; nahiz eta hasieran obra 2018rako amaitzekoa zen, atzeratzen ari da eta 2023an amaituko dela aurreikusten da.

Ur bolumenaren kanonean kenketa automatikoak izanen dira baldin eta azpiegituraren baliagarritasuna eta zerbitzua emateko kudeaketaren kalitatea baldintza-agirian ezarritako estandarren azpitik badaude.

Eskaintzaren atal gisa, sozietate kontzesiodunak plan ekonomiko-finantzario bat egin du kontzesioaren bizi-tza osorako.

Txosten honetan aztertutako aldiari ondorioak sor ditzaten, kontzesio-kontratuaren bost berrorkatze onetsi dira Herri-lanen eta Azpiegituren zuzendari nagusiaren ebazpenen bitartez. Azken berrorkatzea 2021eko maiatzeko da. Kontratuaren oreka ekonomiko-finantzarioaren berrezarpenek bidea eman dute plan ekonomiko-finantzarioa berrikusi eta eguneratzeko, inguruabar berrietara egokitze aldera. Berrorkatze horiek tarifa igoz edota ordainketak aurreratuz egiten dira. Kontratuaren kostuaren aldaketak eragiten dituzte, eta, hala behar denean, kontratuan aldaketak egiten dira.

EKren eta AKKKren 2014ko tarifa unitarioak, eskaintzari dagozkionak, egindako bost berrorkatzeen ondoriozko portzentajeekin eguneratzen dira.

Kanona	Neurketa unitatea	2014ko oinarritzko tarifa unitarioa	2014ko oinarritzko tarifa unitarioa, Berrorkatzeen ondorioz eguneratua
Eskari-kanona	(euro/m ³)	0,02197	0,03272
Kalitate-kanona ⁽¹⁾	€/ureztatutako hektarea garbiko		

⁽¹⁾ Tarifa unitarioa ureztapen-sektore bakoitzerako.

Lehen fasearen zabalpeneko kanona dela-eta 35 milioiko ordainketak egin dira, ustiatzen hasitako 11 ureztapen-eremuei dagozkienak.

Azpiegitura hori, Estatuko agintaritzak eskudunak egindako balorazioaren arabera, ez da zor gisa konputatzen KSE 2010en ezarritakoaren ondorioetarako.

2. GEHIGARRIA: FISKALIZAZIOAREN OHARRAK ETA AURKIKUNTZAK

Ondoren ohar eta argibide osagarri batzuk emanen ditugu, Ganbera honen ustez interesgarriak baitira fiskalizazio txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat.

2.1. AUTOBIAK

2.1.1. Ustiapena eta Administrazioaren kontrola

Behin obra amaituta ustiapen fasea hasten da. Fase horretan, Administrazioaren eta sozietate kontzesiodunaren arteko harremanak kontratuan eta baldintzen agirian (hemendik aurrera ABPA) arautzen dira.

Ustiapen fasearen azterketak, kontzesioaren baldintzen arabera, agerian jarri ditu inguruabar hauek:

- 2014tik ez da inor izendatu Gobernuaren ordezkari sozietate kontzesiodunetan.
- Donejakue Bideko autobiao kontzesiodunak kapital soziala ordezkatzan duten akzioen eskualdaketak jakinarazi du, kontratuan ezarrita dagoen bezala. Pirinioetako Autobiao kontzesioan, non baimena behar baita kontzesiodunaren kapital sozialaren ehuneko hamarretik gora ordezkatzan duten akzioak eskualdatzen direnean, baimenak eman dira Herri-lanen eta Azpiegituren zuzendari nagusiarren ebazpenen bitartez.
- Kontratuetan sozietate kontzesiodunen gutxiengo kapital sozialari buruzko betebeharrak ezarzen dira. Kapital soziala ezin da eskaintako inbertsioaren ehuneko hamar baino gutxiago izan, baina Pirinioetako Autobioaren kontzesioan, azken autobia tartea zerbitzuan jarri eta bost urte igarotakoan, portzentaje hori ehuneko bostera jaitsi da kontzesioaren epe osorako.

Autovía del Camino SAUren kapital soziala, 2021eko abenduaren 31n, inbertsioaren OIAParen ehuneko hamar da, eta Autovía del Pirineo SAUrena, berriz, eskaintako inbertsioaren ehuneko bost da.

- Kalitate adierazleen eragin moderatua ikusten da:

Donejakue Bideko autobian ez da kenketa automatikorik aurreikusten azpiegituraren egoera eta zerbitzuaren kalitatea direla-eta. Kontratuan ezarritako kalitate-estandarrek bete egin dira, eta, beraz, ez da alde horretatik zigor ekonomikorik izan.

Pirinioetako Autobian, EZKKren bidez kontzesiodunak jaso beharreko zenbatekoa murrizten ahal da, kontratuan jasotako azpiegituraren egoerari eta zerbitzuaren kalitateari buruzko bederatzia adierazleren arabera.

Aztertutako kontzesioaldian kalitate adierazle horiek eragin txikia izan dute. Pirinioetako Autobian kalitate adierazleak aplikatuta egindako zuzenketaren ondorioz 346.774 euro gutxiago jaso ditu kontzesiodunak.

Urtea	Kenketa	Kenketa (%) sortzapen gordinaren gainean	EZKKren sortzapen garbia
2012	70.802	1,93	3.602.312
2013	21.271	0,50	4.233.000
2014	0	0,00	4.267.035
2015	7.440	0,18	4.216.924
2016	14.360	0,34	4.210.004
2017	23.623	0,54	4.332.208
2018	23.883	0,54	4.379.862
2019	85.204	1,93	4.371.386
2020	25.386	0,57	4.466.857
2021	74.804	1,67	4.394.978
Guztira	346.774	0,81	42.474.565

Kenketa portzentajeak, nahiz eta administrazio baldintza partikularren agiriko eredu finantzarioan ehuneko bostekoak izan, ez dira ehuneko bitik gorakoak izan urte batean ere.

- Kontzesiodunek, baldintza-agirietako eskakizunak betez, urteko kontuen auditoretza aurkezten diote NFKAri. Pirinioetako Autobiako kontzesiodunak, gainera, bi urtean behingo auditoretzak egin behar ditu. Betebehar hori bete izana jasorik dago 2020tik.
- NFKAK laguntza teknikoko kontratuak egin ditu kanpoko enpresekin, ustiapena ikuskatzeko. Donejakue Bideko autobian eta Pirinioetako Autobian badira urte anitzeko kontratuak ustiapenaren zuzendaritzarako laguntza teknikoak emateko. Kontratuen xedeetako batzuk dira kalitate mailak egiaztatzea, kanonaren ordainketaren oinarri den trafikoa egiaztatzea, txostenak egitea, neguko bide-zaintzaren jarraipena egitea eta Pirinioetako Autobian EZKK zehazteko saiakuntzak egitea. Kontratu hauek daude indarrean:

Autobia	Adjudikazio data	Adjudikazioduna	Adjudikazioaren zenbatekoa BEZik gabe	Epea
Donejakue Bideko autobia	2019/01/14	LRA Infrastructures Consulting SL / LCA SL	297.520	2019-2023
Pirinioetako Autobia	2019/01/14	LRA Infrastructures Consulting SL / LCA SL	495.868	2019-2023

Bi autobietarako laguntza teknikoaren gastua, 2014tik⁷ 2021era bitartean, honako hau izan da:

Urtea	Aurrekontuko gastua
2015	183.460
2016	183.499
2017	183.301
2018	183.517
2019	175.901
2020	191.831
2021	181.348
Guztira	1.282.857

- Autovía del Camino SAUK, kontratuaren arabera, eskari-kanonarengatik jasotzen dituen diru-sarreraren ehuneko 50 (BEZik gabe) eta diru-sarrera horien BEZaren zenbatekoa gordailu kontu berezi (GKB) batean sartuko dituela hitz eman du. Kontratuan ezarrita dagoenez, kontzesiodunak besteren baliabideen bidezko finantzaketaren ondoriozko ordainketetarako soilik baliatzen ahal du kontu hori, hau da, interesak eta amortizazioak ordaintzeko. Gordailu kontu berezia Administrazioaren mekanismo bat da kontzesioaren kontrol eta jarraipen ekonomikorako. Izan ere, baliteke kontzesioaren amaiera aurreratzea, besteren finantzaketa eta hari lotutako gastuak osorik amortizatzen badira.

Kontratuak dio kontzesiodunak urtero txosten bat egin behar duela aurreko urteko GKBan izandako mugimendu guztiak azaldu eta justifikatzeko, eta Gobernuaren ordezkariari aurkeztu behar diola. Txosten horiek Ekonomia eta Aurrekontu Kudeaketarako eta Gastuaren Kontrolerako Zerbituari aurkezten zaizkio, eta Herri-lanetako zuzendari nagusiaren ebazpenen bidez onesten dira. Gaur egun GKBaren saldoak defizita du eta, beraz, ez da aurreikusten kontzesioaren epea laburtzerik.

⁷ 2014ra arte Donejakue Bideko autobian baliabide berekiak erabili ziren

Kontzesioaren oreka ekonomikoa berrezartzea

Kontzesiodunak hartzen du bere gain eskariaren arrisku eta zoria, eta ezin dio Administrazioari inolako ordainik erreklamatu trafikoaren benetako bilakaera ez badator bat kontzesiodunak berak eskaintzan egindako prognosiarekin. Baldintza-agirietan zehazten dira balizko berrerekatzeen arrazoiak.

Kontzesiodunek eskatutako berrerekatzeen egoera honako hau da txosten honen datan:

- *Donejakue Bideko autobia*

2014-2021 bitartean kontzesiodunak behin eskatu du oreka ekonomikoa berrezartzeko. 2021eko apirilean Autovía del Camino SAU sozietate kontzesiodunak kontratuko oreka ekonomiko-finantzarioa berrezartzeko eskaera aurkeztu zuen, COVID-19aren pandemia zela-eta. Izan ere, 2020an mugikortasunaren murrizketek zuzeneko eragina izan zuten trafikoan, eta batez ere ibilgailu arinen trafikoari eragin zioten. Erreklamazioa ezetsi egin zen Herri Lanetako zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez, 2021eko uztailean. Ezespenaren aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu zen, eta hura ere ezetsi egin zen Lurralde Kohesiorako kontseilariaren 2022ko martxoko foru agindu batez. Autovía del Camino SAU sozietateak administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri du Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusian foru agindu horren kontra.

- *Pirinioetako Autobia*

Autovía del Pirineo SAU sozietate kontzesiodunak 2014tik hona hiru aldiz eskatu du oreka berrezartzeko.

a) Lehenbizikoz 2013an, Estatuak ez zituelako egin Pirinioetako igarobidea zerbitzuan jartzeko obrak. Ezespina berretsita dago Auzitegi Gorenean (AG).

b) Bigarren aldiz 2017an, lurraren gaineko kontribuzioa ordaindu behar zela autobia zeharkatzen dituen udalerriei. Auzitegi Gorenean jarritako kasazio errekurtsua ebazteko dago.


c) Hirugarren aldiz 2020an, COVID-19 pandemia zela-eta. Gora jotzeko errekurtsua ezetsi egin zen Lurralde Kohesiorako kontseilariaren apirilaren 15eko 29/2021 Foru Aginduaren bidez. Kontzesiodunak administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu zuen Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusian, eta auzitegiak 2022ko martxoan errekurtsua ezetsi du, ez delako egiaztatu oreka hautsi denik kontzesio-kontratuan, zeinak 30 urteko indarraldia baitu. Autovía del Pirineo SAU sozietateak ez du kasazio errekurtsorik aurkeztu. Beraz, epaia irmoa dela deklaratu da.

Aurreikuspenen eta benetako ordainketen arteko desbideratzeen azterketa

Atal honetan aztertzen dugu, euro korrontetan, zer desbideratze izan diren, kontzesioaren ustiapen aldiaren hasieratik 2021era arte, datu errealek eta eskaintza indarduneko plan ekonomiko-finantzarioko aurreikuspenen artean.


- *Donejakue Bideko autobiarene ustiapen aldiaren izandako desbideratzeak*

Grafiko honetan ageri da benetako trafikoaren eta plan ekonomiko-finantzarioan adierazitako trafikoaren arteko konparazioa 2007tik 2021era bitartean:



Benetako trafikoa aurreikusitakoa baino urriagoa izan da. Aldea nabariagoa da ibilgailu arinen trafikoan (ehuneko 17 gutxiago), eta ez hainbeste ibilgailu astunen trafikoan (ehuneko bederatzigutxiago).

Hona hemen sortutako urteko kanonaren eta aurreikusitakoaren arteko konparazioa:




Sortutako urteko kanona, 2007tik 2021era arte, plan ekonomiko-finantzarioan aurreikusi baino ehuneko 20 txikiagoa izan da bai eskari-kanonean bai kontserbazio-gehigarriaren kanonean, trafiko urriagoa tarteko. Aztertutako aldiaren urteko kanona batez beste 34ko milioikoa izan da.

- *Pirinioetako Autobiaren ustiapen aldian izandako desbideratzeak*


Desbideratzeen konparazio-azterketaren oinarritzat eskaintzaren plan ekonomiko-finantzarioa hartu dugu.

Grafiko honetan ageri da benetako trafikoaren eta plan ekonomiko-finantzarioan adierazitako trafikoaren arteko konparazioa 2012tik 2021era arte:



Benetako trafikoa aurreikusitakoa baino nabarmen urriagoa izan da: ibilgailu arinen trafikoan ehuneko 43 gutxiago, eta ibilgailu astunen trafikoan ehuneko 73 gutxiago.

Hona hemen benetan sortutako urteko kanonaren eta aurreikuspenen arteko konparazioa:



Sortutako urteko kanona, 2012tik 2021era arte, PEFean aurreikusitako kanonaren aldean ehuneko 51 txikiagoa izan da EKren kasuan eta ehuneko 4 txikiagoa EZKKren kasuan. Aztertutako aldian urteko kanona batez beste 13,5 milioikoa izan da.

Sortutako urteko kanonaren eta aurreikusitakoaren arteko alde nagusiak trafiko maila apalagoen ondorio dira, Pirinioetako igarobidea irekitzeko atzerapena dela-eta.

Azkenik, bi kontzesioetarako, tarifetan ez dago alde adierazgarririk, aurreikusitako igoera ehuneko 2,5ekoa baita urtean. Ustiapen aldiko batez besteko inflazioa aurreikusi baino apur bat apalagoa izan da. Nahiz eta KPIaren egungo datuek (urtetik urterako ehuneko 6,5eko igoera 2021eko abenduan) epe laburrerako inflazio handia iragartzen duten, KPIaren epe ertaineko bilakaeraren aurreikuspena ehuneko bi ingurukoa da.

2.1.2. Aurrekontuari buruzko informazioa

Kontratuen ondoriozko betebeharrak ekonomikoak kalkulatzeko, tarifak aplikatzen zaizkio benetako trafikoari. Kanonaren urteko zenbatekoak aurrekontuaren 2. kapituluaren (ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketak) jasorik daude, 209. kontzeptuan (autobiaren kanona).

Bada, 2021era arte Nafarroako aurrekontu orokorretan 764 milioi aitortu dira sozietate kontzesio-dunei ordaindu beharrekoak, honela xehakaturak:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Donejakue Bideko autobia	603.653
Pirinioetako Autobia	160.100
Guztira	763.753

(Milakoak)

- *Donejakue Bideko autobia*

Taula honetan zehatzago aztertzen dira sortzapena eta aurrekontuko egozpena urtez urte, trafikoaren bilakaerarekin batera, Donejakue Bideko autobidearen kontzesioa hasi zenetik:

Urtea	Ibilgailu arinak/km/urte	Ibilgailu astunak/km/urte	Ibilgailuak guztira/km/urte ^(*)	Eskari-kanonaren sortzapena	(Milakoak, ibilgailu kopuruetan izan ezik)		
					Kontserbazio-gehigarriaren sortzapena	Sortzapena guztira, BEZa barne	Aurrekontuko gastua, guztira
2007	262.277.747	32.258.326	294.536.073	27.542	1.697	33.917	27.527
2008	270.003.855	33.255.072	303.258.927	29.062	1.785	35.782	40.200
2009	273.478.310	30.986.103	304.464.413	30.519	1.875	37.578	39.501
2010	276.945.551	32.430.992	309.376.543	30.790	1.892	38.564	37.694
2011	275.225.500	31.551.861	306.777.361	31.051	1.909	38.893	39.901
2012	261.794.171	29.715.571	291.509.742	30.375	1.868	38.369	40.120
2013	256.966.508	30.014.280	286.980.788	30.735	1.891	39.477	38.008
2014	263.619.512	30.855.866	294.475.378	32.000	1.971	41.104	36.323
2015	272.080.170	33.202.019	305.282.189	33.059	2.036	42.466	38.547
2016	284.904.646	35.097.208	320.001.854	34.529	2.126	44.352	43.741
2017	294.260.429	36.278.635	330.539.064	35.634	2.192	45.770	46.195
2018	300.250.787	37.537.460	337.788.247	37.026	2.277	47.556	47.790
2019	304.116.825	37.771.087	341.887.912	38.283	2.354	49.171	49.461
2020	235.070.244	33.697.612	268.767.856	30.331	1.865	38.957	49.523
2021	285.113.798	37.256.789	322.370.587	36.092	2.220	46.357	29.121
Guztira				487.027	29.958	618.314	603.653

(*) EBBla (eguneko batez besteko intentsitatea) bider autobiaren guztizko luzera (70 km) urte natural osorako.

Kontzesiodunak 2021eko abendura arte kobratu zituen 517 milioietatik (BEZa kontuan hartu gabe), diru-sarreraren ehuneko 94 eskari-kanonari dagozkie.

Urtean zehar konturako diru kopuru bat ordaintzen da hilero, aurreko urteko trafikoaren arabera kalkulatua. Behin urtea amaituta, hurrengo urtearen hasieran, aurreko urteko trafiko bolumenei buruzko behin betiko datuak erabiliz, amaierako likidazioa kalkulatu da eta hurrengo urteko ordainketetan konpentsatzen da. Hori dela-eta, alde batzuk gertatzen dira urteko sortzapenaren eta aurrekontu-apunteen artean. Izan ere, aurrekontuan islatu ez diren 14,66 milioi gehiago sortu dira. Gertaera hauei dagozkie:

- 2021eko likidazio ekonomikoa, 2022ko urtarrilaren 31n onetsi dena, 7,58 milioiokoa.
- 2021eko abenduko kanona, 2022ko aurrekontuari egozten zaiona, 3,23 milioiokoa.

c) Autobiako bi tartetan bide-zorua sendotzeko lanak egin beharrik ez izateak NFKAri ekarri dion aurrezpena, 3,63 milioi guztira, kontratuaren arabera kontzesiodunak egin behar baitzituen lan horiek. Aurreztutakoa egozteak kontratuaren aldaketa bat eragin zuen eta kanonaren ordainketetan konpentsatu da, edo unean uneko konponketa lanak eginez.

- *Pirinioetako Autobia*

Taula honetan zehatzago aztertzen dira sortzapena eta aurrekontuko egozpena urtez urte, trafikoaren bilakaerarekin batera, Pirinioetako autobidearen kontzesioa hasi zenetik:

(Milakoak, ibilgailu kopuruetan izan ezik)

Urtea	Ibilgailu arinak/km/urte	Ibilgailu astunak/km/urte	Guztira Ibilgailu/km/urte ^(*)	Eskari-kanonaren sortzapena	EZKKren sortzapena	Sortzapena guztira, BEZa barne	Aurrekontuko gastua, guztira
2012	104.200.551	5.488.913	109.689.464	7.183	3.673	12.879	13.140
2013	113.229.715	6.150.979	119.380.694	8.301	4.233	15.166	14.985
2014	117.435.362	6.036.105	123.471.467	8.603	4.267	15.572	15.122
2015	123.369.401	6.270.753	129.640.154	8.939	4.217	15.918	14.492
2016	129.831.779	6.143.789	135.975.568	9.365	4.210	16.426	16.380
2017	136.173.561	6.436.225	142.609.786	9.982	4.332	17.711	17.597
2018	135.406.220	6.507.838	141.914.058	10.050	4.380	17.460	18.005
2019	143.119.655	6.815.692	149.935.347	10.739	4.371	18.283	17.595
2020	115.518.109	6.129.596	121.647.705	8.802	4.467	16.055	18.991
2021	137.452.512	6.631.808	144.084.320	10.351	4.395	17.843	13.793
Guztira				92.315	42.528	163.314	160.100

(*) EBBla (eguneko batez besteko intentsitatea) bider autobiaaren luzera (45,21 km) urte natural osorako.

Kontzesiodunak 2021eko abendura arte kobratu zituen 134,8 milioietatik (BEZa kontuan hartu gabe), 42,5 milioi dagozkio EZKKri; hau da, diru-sarreraren ehuneko 32 ez daude trafikoaren menpe.

Urtean zehar, hilero zenbateko bat ordaintzen da aurreko urteko trafikoaren arabera, eta hurrengo urtean doitzen da. Hori dela-eta, alde batzuk gertatzen dira urteko sortzapenaren eta aurrekontu-apunteen artean. NFKArentzako 3,21 milioiko aldea honako hauei dagokie: 2021eko likidazio ekonomikoari (2022ko otsailean onetsi da eta 1,87 milioikoa da) eta 2021eko abenduko kanonari (2022ko aurrekontuari egotzi behar zaio eta 1,33 milioikoa da).

2.2. NAFARROAKO UBIDEA

2.2.1. Ustiapena eta Administrazioaren kontrola

- Kontzesio-kontratuko kontzesio-emailea INTIA sozietatea da. Berak ikuskatu, zaindu eta kontrolatzen du Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarrietako kontzesiodun diren sozietateek betebeharrak betetzen ote dituzten, bai eraikuntza fasean, baita ustiapen fasean ere. NFKAk administrazio-ahalak ditu kontratuaren aldaketei eta kontzesioaren oreka ekonomikoa berrezartzeari buruzko erabakiak hartzeko; gainera, ikuskapen, zaintza eta kontrol eginkizunak betetzen ditu, kontzesioaren jarraipenerako batzorde mistoan parte hartzen baitu.

- Batzorde mistoa kontratuko alderdien arteko harremanak koordinatzeko organoa da. INTIAren eta sozietate kontzesiodunaren ordezkariak osatzen dute, eta Gobernuaren ordezkariak ere parte hartzen du, jarraipen eta informazio eginkizunetan. Kontratuan ezarrita dagoenez, urteko kontuen formulazioa eta egoera-orria eta auditoretzako txostenak batzorde horri igorri behar zaizkio.

- Gobernuak sozietate kontzesiodunetan duen ordezkaria Ekonomia eta Ogasun Departamentuko enplegatu publiko bat da, Administrazio kontseiluetan parte hartzen du, hizpidearekin baina botorik gabe, eta kontzesioaren jarraipenerako batzorde mistoan ere parte hartzen du. Sozietate kontzesiodunak urtero finantza-auditoretzako txostenak igortzen dizkio Gobernuaren ordezkariari.

- Sozietate kontzesiodunen akzioen salerosketen aurretik jakinarazpena egiten zaio, edo baimena eskatzen, kasua bada, INTIAko betearazpen batzordeari, kontratuan ezarritakoarekin bat etorritik.

- INTIAk kontsumitzen den ur bolumenaren jarraipena eta kontrola egiten du, eta ur-harguneeen ausazko laginen azterketa teknikoak egiten du, behar bezala funtzionatzen dutela eta irakurketak fakturatutako bolumenarekin bat datozela egiaztatzeko.

- Ur kontsumoa, funtsean, ureztatze sistemetara konektatutako azaleraren, labore moten eta eguraldiaren arabera da.

Hona hemen lehen fasean ureztagarri instalatuta daukan azaleraren eboluzioa 2014-2021 bitartean:

Urteak	Hektarea ureztagarri garbiak	Instalazioa baduten hektareak	Instalatuen ehunekoa	Kontsumoa (m ³ /ha) instalazioarekin
2014	22.445	19.539	87	4.621
2015	22.464	19.812	88	4.753
2016	22.473	20.032	89	4.682
2017	22.472	20.140	90	4.341
2018	22.470	20.155	90	3.926
2019	22.469	20.265	90	4.873
2020	22.404	20.295	91	4.021
2021	22.398	20.363	91	4.234

2021ean azalera ureztagarri garbia 22.398 hektareakoa zen, eta horietatik ehuneko 91k zeukaten instalatuta ureztagarria. Kopuru hori ia ez da aldatu azken urte hauetan.

Hona hemen lehen fasearen zabalpenean ureztagarri instalatuta daukan azaleraren eboluzioa 2014-2021 bitarteko urte bakoitzeko aldian:

Urteak	Hektarea ureztagarri garbiak	Instalazioa baduten hektareak	Instalatuen ehunekoa ^(*)	Kontsumoa (m ³ /ha) instalazioarekin
2017	6.848	2.667	56	2.695
2018	6.860	3.546	73	4.099
2019	6.867	5.249	82	5.400
2020	6.859	5.605	88	4.480
2021	8.097	6.512	88	4.966

(*) Ustiatzen diren hektareen gaineko ehunekoa, hau da, hektarea ureztagarri garbiak ken grabitatez ureztatutako hektareak

Lehen fasearen zabalpenean 2021eko abenduaren 31n ustiatzen ari zen azalera 8.097 hektareakoa zen guztira, hau da, hasieran aurreikusitako 15.275 hektareako azaleraren ehuneko 53.

- Kontratuaren eskatzen da akziodunek guztizko inbertsioaren gaineko gutxieneko baliabide portzentaje bat ekar dezatela. Guztizko inbertsioetat jotzen da exekuzio materialaren aurrekontua gehi mozkin industriala eta gastu orokorrak. Kapitala handitu egiten da portzentaje hori mantentzeko, sektore bakoitzean aurreikusitakoa baino handiagoa denean inbertsio osoa. Sektore bakoitzeko OIAPA onesten denean, egokitu egiten da gutxieneko portzentaje eusteko.

AGUACANALen kapital soziala OIAPAN ezarritako inbertsioaren ehuneko hamar da 2021eko abenduaren 31n. Zabalpenean, Aguas de Navarra SAREN kapital soziala, oraindik gauzatzen ari diren ureztagarri-sektoreak badaudenez, inbertsioa egin ahala handitzen da, gutxieneko portzentaje eusteko; 2021eko abenduaren 31n funts berekiak guztizko inbertsioaren ehuneko 15 ziren, hau da, kontratuan ezarritako gutxieneko portzentajea.

- INTIAK laguntza teknikoko zenbait kontratu egin ditu kanpoko enpreekin, arlo ekonomiko-finantzarioko aholkularitza espezifikoko eta espezializaturako, Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriaren garapenerako bi kontzesio-kontratuarekin lotuta. Kontratu horien xedea da aholku teknikoak ematea hainbat gairi buruz: bideragarritasun azterketak, baldintza-agirien interpretazioa, kontratuen aldaketek PEFetan izan dezaketen eragina, eta abar. Txosten honen datan kontratu hau dago indarrean:

	Adjudikazio data	Adjudikazioduna	Zenbatekoa BEZik gabe	Epea
Ubidearen eremu ureztagarria	2021/12/10	PwC	133.340	2021-2025

Laguntza teknikoko gastua (BEZa barne) honako hau izan da 2014-2021 aldian:

Urteak	Aurrekontuko gastua
2014	45.700
2015(*)	0
2016	0
2017	49.633
2018	113.491
2019	201.610
2020	206.218
2021	58.564
Guztira	675.216

(*) 2015eko eta 2016ko ekitaldietan ez dago gasturik. Lehen faseko 2011ko azken berrorkatzearen eta lehen fasearen zabalpeneko lehenbiziko berrorkatzearen arteko aldia da.

- Nafarroako Ubidearen lehen fasean eta lehen fasearen zabalpenean, azpiegituren kudeaketaren kalitate-kanona (AKKK) hektarea garbieraren kopuruan oinarrituta kalkulatzen da. Kanon horretan kenketa automatikoak egiten dira, kontratuan definitutako estandar egokienak betetzen ez badira. Hauek dira fiskalizatutako aldiaren kontzesioetako bakoitzean egindako kenketak:

1) Lehen fasean ez da kenketarik aplikatu, estandarrak bete direlako.

2) Nafarroako Ubidearen lehen fasearen zabalpenean kenketak egin dira bai AKKK kanonean bai UBKn (ur bolumenaren kanona). 2021eko abenduaren 31ra arte egindako kenketak ez dira adierazgarriak guztizko kanonaren aldean, urtez urteko xehakapen honetan ikus daitekeenez:

Urtea	Kenketa kalitate-adierazleetan	Kenketa (%) sortzapen gordina- ren gainean	AKKK + UBK
2018	909	0,02	4.302.849
2019	7.635	0,15	5.225.696
2020	1.925	0,04	5.437.087
2021	2.937	0,04	7.588.718
Guztira	13.406	0,06	22.554.350

- Oraindik ez da amaitu Nafarroako Ubidearen lehen fasearen zabalpenaren eraikuntza; onenean ere obrak 2023aren azkenean amaitzekoak dira. Obraren atzerapenak ustiapen aldia laburtzea dakar, beste ondorio batzuen artean.

Kontzesioaren oreka ekonomikoa berrezartzea

Sozietate kontzesiodunak kontzesioaren oreka ekonomikoa berrezartzeko eskubidea du, zenbait ureztapen-sektoretako azken inbertsioetan gertatzen diren aldeengatik, funtsean. Hori dela-eta, sozietate kontzesiodunari konpentsaziozko diru kopuruak ordaindu izan zaizkio (up-front ordainketak) eta tarifetan doikuntzak egin dira, betiere akziodunarentzako errentagarritasuna mantentzeko, lehen fasean, eta proiektuaren errentagarritasuna mantentzeko, lehen fasearen zabalpenean.

Autobietan ez bezala, Nafarroako Ubidean azken inbertsioak eraikuntza fasean izandako aldaketek eragin dituzte orekaren berrezarpenak.

- Lehen faseko berrorkatzeak*

Onetsi zen azkena laugarrena izan zen, 2011ko abenduaren 31koa. Beraz, Ganbera honen azken txostenaz geroztik ez da berrorkatze bat ere izan.

Eraikuntza aldi onetsitako berrerekatzeak eta tarifen izan duten eragina laburpen-taula honetan ageri dira:

Ubidearen 1. faseko berrerekatzeak	Eskaintza	B 1	B 2	B 3	B 4	Berrerekatzeetan metatua
Eskari-kanona (euroak, 2006)	0,0446	0,0461	0,0479	0,0498	0,0565	0,0565
AKKK (euroak, 2006)	202,07	209,02	217,07	225,58	255,96	255,96
Berrerekatzeengatikoko igoeraren ondorioak noiz		2009	2010	2011	2012	
Tarifen igoera (hasierako tarifen gaineko ehunekoak)		3,44	3,85	3,92	13,47	26,67

Ganbera honek 2014ko abenduan argitaratutako "Itzaleko bidesaria" txostenean honako hau adierazi zuen Nafarroako Ubidearen lehen faseko berrerekatzeen eraginaz:

"Berrerekatze horien eragin garbiak, 2012tik aurrera kontatuta, ehuneko 26,67ko igoera dakar, hasierako eskaintzarekin alderatuta. Eragin hori tarifa unitarioari dagokio.

Tarifaren igoera horren arrazoi nagusiak izan dira hasierako ustiaketa planaren aldaketa –bide eta drainatzeen mantentzea zabaldu eta hobetzeko–, ureztatutako azalera garbia orrietan ageri zenetik ehuneko 5,3 jaitsi izana, obrako inbertsioak ehuneko 8,6 igo izana eta orrietan ezarritako epeetan gertatu diren aldaketak".

- *Lehen fasearen zabalpeneko berrerekatzeak:*

Fiskalizatutako aldi onetsitako azkena bosgarrena izan zen, 2021eko maiatzaren 18koa, eta 2021ean sortu zituen ondorioak. Berrerekatze horien eragin garbiak ehuneko 49,41eko igoera ekarri du eskaintako tarifetan.

Ubidearen 1. fasearen zabalpeneko berrerekatzeak	Eskaintza	B 1	B 2	B 3	B 4	B 5	Berrerekatzeetan metatua
Eskari-kanona (€ 2014)	0,02197	0,02268	0,02528	0,02656	0,03276	0,03282	0,03282
Berrerekatzeengatikoko igoeraren ondorioak noiz		2017	2019	2020	2021	2021	
Tarifen igoera (hasierako tarifen gaineko ehunekoak)		3,24	11,86	5,81	28,23	0,27	49,41

AKKK eta UBK tarifak portzentaje berean igotzen dira. Ez dugu jaso AKKK tarifen bilakaera, tarifa desberdinak daudelako ureztapen eremu edo sektore bakoitzean.

Bi berrerekatze onetsi dira ondorioak 2022an sortzeko eta beste bat ondorioak 2023an sortzeko. Zortzi berrerekatzeen eragin metatua eskaintako tarifen ehuneko 49,23 da.

- Lehenbiziko bi berrerekatzeek, tarifen igoeraz gainera, sozietate kontzesiodunari konpentsaziozko diru kopuru bat ordaintzea ekarri dute (up-front ordainketak): 5,3 milioi, guztira.

a) 2018ko otsailaren 9an lehenbiziko berrerekatzea onetsi eta gero ehuneko 3,24 igo ziren AKKK eta UBK ordainketak, gehi 1,3 milioiko konpentsaziozko diru kopurua, BEZa barne.

b) Bigarren berrerekatzea 2019ko abenduaren 31n onetsi zen, kontratuaren aldaketa bat onetsi zelako, orduan ustiatzen ari ziren sektore guztiak baliozkotzeko. Horrek, tarifen ehuneko 11,86ko igoera gehigarriaz gain, sozietate kontzesiodunarentzako konpentsaziozko diru kopuru baten ordainketa ekarri zuen: 4 milioi, BEZa barne.

- Laugarren berrerekatzearen eragin ekonomiko-finantzarioa da garrantzitsuena, eta eraikuntzarako egutegia bete ezin izateari zor zaio funtsean. Ureztapen sektore batzuetan gertatutako atzerapen obraren amaieraren atzerapena ekarri dute. Ondorioz, hasieran aurreikusitako ustiapen aldia 26 urtetik 22ra laburtu da eta, horrenbestez, ordaindu beharreko kontzesioaren epea ere laburtu egin da.

Tarifaren igoera horren arrazoi nagusiak izan dira, besteak beste, zenbait sektoretako ureztapen jarduketan proiektu berriak onetsi izana; ureztatutako azalera garbia orrietan ageri zenetik ehuneko 15 jaitsi izana; obrako inbertsioa ehuneko 19 igo izana; eta obren egutegian eta ustiapena hasteko datetan egindako aldaketak.

Azpimarratu behar da oso konplexua dela berrorekatzeko horiek kalkulatzeko eredu finantzarioa. Berrorekatzeari buruzko txosten teknikoak laguntza tekniko kontratuaren adjudikaziodunak egiten ditu lehenik, haien zailtasunagatik. Gero Administrazioaren beraren bitartekoekin aztertzen eta egiaztatzen dira berrorekatzekoak. Hala, bada, Lurralde Kohesiorako Departamentuko Ekonomia eta Aurrekontu Kudeaketarako eta Gastuaren Kontrolerako Zerbitzuak berrorekatzeko proposamenetako datu ekonomikoak egiaztatu ditu.


Hirugarren, laugarren eta bosgarren berrorekatzeko-espeditentak direla-eta Kontu-hartzaitza Nagusiak eragozpen-ohar etengarriak egin ditu. Eragozpen-ohar horiek organo kudeatzailearen alde ebatzi ziren Gobernuaren erabaki banatan.

Aurreikuspenen eta benetako ordainketen arteko desbideratzeen azterketa

Atal honetan aztertzen dugu, euro korrontetan, zer desbideratze izan diren, kontzesioaren ustiapenaldiaren hasieratik 2021era arte, datu errealean eta eskaintzako PEFean nahiz PEF indardunean daudden aurreikuspenen artean.


- *Nafarroako Ubidearen lehen faseko desbideratzeak ustiapenaldian*

Grafiko honetan ageri da benetan kontsumitutako ur bolumenaren eta zenbatetsitakoaren arteko konparazioa, 2012an ustiapena hasi zenetik 2021era arte:



Kontsumitutako ur bolumena aurreikusi baino nabarmen txikiagoa izan da, batez beste ehuneko 25 txikiagoa 2012tik 2021era bitarteko urteetan. Desbideratzea ehuneko 35era iritsi da 2013an eta ehuneko 27ra 2021ean.


Honako taula honetan alderatzen dira, laburbilduta, ordaindutako kanonaren benetako datuak eta aurreikuspenak (eskaintzako aurreikuspenak eta onetsitako azken berrorkatzearen ondorioz 2011n eguneratutako PEFekoak)



Aztertutako aldian ordaindu den baterako kanona batez beste 12,28 milioikoa da BEZik gabe. Eskaintzako zenbatekoa baino ehuneko bi txikiagoa da, eta azken PEF eguneratuan aurreikusitakoa baino ehuneko 18 txikiagoa.


Nafarroako Ubidearen lehen fasearen zabalpeneko desbideratzeak ustiapen aldian:

Grafiko honetan alderatzen dira benetan kontsumitutako ur bolumena eta aurreikusitakoa (eskaintzako aurreikusitakoa eta 2021eko PEF indardunean aurreikusitakoa), 2015ean ustiapena hasi zenetik 2021era arte:



Kontsumitutako ur bolumena aurreikusitakoa baino nabarmen txikiagoa izan da. 2017tik 2021era arte metatutako kontsumoa PEF indardunean aurreikusi baino ehuneko 41,8 gutxiago da, batez ere ustiapenaren hasiera atzeratu izanaren ondorioz.

Hasierako ustiapen urteetatik 2021era bitartean ordaindutako kanonaren benetako datuak eskaintzako eta 2021eko PEF indarduneko aurreikuspenekin alderatzen dira taula honetan, laburbilduta:



Laugarren berrerekatzearen ondorioz urteko zenbatekoak beherantz doitu behar izan dira obren atzerapenengatik. Etorkizuneko ekitaldietan konpentsatzen joanen da. Ordaindutako batez besteko kanona aldirako aurreikusitako batez besteko kanonaren ehuneko 68 da.

Azkenik, bi kontzesioetarako, tarifetan ez dago alde adierazgarririk, aurreikusitako igoera ehuneko 2,5ekoa baita urtean. Ustiapen aldiko batez besteko inflazioa aurreikusi baino apalagoa izan da.

2.2.2. Aurrekontuari buruzko informazioa

Kanonaren urteko zenbatekoak aurrekontuaren 4. kapitulan (transferentzia arruntak) jasorik daude, 4700. kontzeptuan. Kanon hau INTIARI ordaintzen zaio, bitartekari aritzen baita.

Azken batean, 2021era arte Nafarroako aurrekontu orokorretan honako ordainketa hauek aitortu dira Ubidearen eremu ureztagarriak direla-eta:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriak (1. fasea)	169.721
Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriak. 1. fasearen zabalpena	35.394
Guztira	205.115

(Milakoak)

- *Nafarroako Ubidearen lehen fasea*

Taula honetan zehatzago aztertzen dira sortzapena eta aurrekontuko egozpena urtez urte, ur kontsumoaren eta ustiatutako azaleraren (ha) bilakaerarekin batera, Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarrien lehen faserako kontzesioa hasi zenetik:

(Milakoak, kontsumoetan eta azaleretan izan ezik)

Urtea	Kontsumoak (m ³)	Azalerak (ha)	Eskari-kanonaren sortzapena	AKKKren sortzapena	Sortzapena guztira, BEZa barne	Aurrekontuko gastua, guztira
2007	1.423.879	1.164	70	316	448	448
2008	4.693.560	6.494	220	969	1.380	1.380
2009	18.418.986	13.332	903	2.470	3.912	3.912
2010	32.840.294	16.622	1.697	3.642	6.256	6.256
2011	62.477.661	22.353	3.376	5.120	10.025	10.025
2012	91.735.636	22.370	5.369	6.489	14.157	14.157
2013	76.004.672	22.412	4.868	6.688	13.983	13.983
2014	90.296.525	22.445	5.629	6.715	14.936	14.935
2015	94.166.393	22.464	5.889	6.651	15.173	15.173
2016	93.788.682	22.473	5.709	6.655	14.960	14.960
2017	87.425.080	22.472	5.524	6.759	14.862	14.160
2018	79.130.220	22.470	5.146	6.834	14.496	13.808
2019	98.752.369	22.469	6.128	6.914	15.781	16.472
2020	81.607.196	22.404	5.407	6.949	14.950	14.914
2021	86.220.081	22.398	5.573	6.909	15.104	15.138
Guztira			61.508	80.079	170.424	169.721

Alde batzuk gertatzen dira urteko sortzapenaren eta aurrekontu-apunteen artean. Sortutako baina aurrekontuan islatu gabeko 0,7 milioiko alde 2022ko aurrekontuari egotzita dago, eta 2021eko abenduko likidazioari dagokio.

Kontzesiodunak 141 milioi (BEZik gabe) kobratu zituen 2021eko abendura arte; zenbateko horretatik ehuneko 43 eskari-kanonari dagokio eta ehuneko 56 azpiegituren baliagarritasunari, eta, beraz, ez da ur kontsumoaren araberakoa.

- *Nafarroako Ubidearen lehen fasearen zabalpena*

Taula honetan zehatzago aztertzen dira kanonaren sortzapena eta aurrekontuko egozpena urtez urte, ur kontsumoaren eta ustiatutako azaleraren (ha) bilakaerarekin batera, Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarrien lehen fasearen zabalpenerako kontzesioa hasi zenetik:

(Milakoak, kontsumoetan eta azaleretan izan ezik)

Urtea	Kontsumoak (m ³)	Azalerak (ha)	UBKren sortzapena	AKKKren sortzapena	Sortzapena guztira, BEZa barne	Aurrekontuko gastua, guztira
2015		102		6	7	
2016		1.451		393	476	
2017	7.186.853	6.848	164	2.901	3.708	2.916
2018	14.532.748	6.860	335	3.968	5.206	7.015
2019	28.346.656	6.867	734	4.485	6.315	9.651
2020	25.109.573	6.859	691	4.745	6.578	7.075
2021	32.337.081	8.097	1.094	6.494	9.182	8.738
Guztira			3.019	22.992	31.473	35.394

2015ean eta 2016an AKKK kanona baino ez zen sortu. Sortutako guztizko zenbatekoa 36,81 milioi da, berrerekatzeetan onetsitako ordainketa aurreratuak barne: lau milioi bigarren berrerekatzean eta 1,3 milioi lehenbiziko berrerekatzean. Guztizko sortzapenaren eta aurrekontuko gastuaren arteko alde 2021eko abenduko 1,4 milioiko likidazioari dagokio eta 2022ko aurrekontuari egotzi zaio.

2.3. ITZALEKO BIDESARIARI BURUZKO EKONOMIA- ETA ONDARE-INFORMAZIOA

Atal honetan aztergai dugu NFKAk Nafarroako Kontu Orokorretako oroitidazkian eta egoera-balantzean eskaintzen duen informazioa, fiskalizatutako azpiegiturak direla-eta. Azpiegitura horiek gaur egun ez dira jasotzen egoera-balantzean ibilgetu materialaren barruan. Nafarroako Kontu Orokorretako oroitidazkiak zehazten du zer ordainketa-fluxu aurreikuspen ahal diren "Itzaleko bidesaria" ize-neko atalean. Etorkizuneko gastuari buruzko aurreikuspen horiek kontabilitatean pasibo kontingentetzat jotzen dira, eta haien gaineko informazioa eman behar da kontuetako oroitidazkian.

2010eko Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorriari 2021eko uztailaren egindako aldaketa baten birtartez,⁸ kontzesio-akordioei aplikatu beharreko aitortpen eta balorazio arau bat sartu da planean. Horren arabera: *"Kontzesio-akordioei entitate kontzesio-emaileak bere aktiboan erregistratuko ditu berak edo entitate kontzesio-hartzaileak kontzesiorako jarritako aktiboak, beren izaeraren arabera, bai eta lehendik badiren aktiboan edozein hobekuntza ere."*

Adierazi behar da finantza-kontabilitatearen esparruko irizpidea ez dela kontabilitate nazionalaren esparruko arrisku-transferentziari buruzko irizpidearen berdina.

Funtsezkoa da kontuetako oroitidazkian kontzesio-kontratu hauen gaineko informazioa jasotzea, bereziki kontzesio bakoitzari buruzkoa: kontzesioaren deskribapena, haren baldintza garrantzitsuak (zenbatekoak, epeak...), kanona dela-eta egindako ordainketak, aurreikuspen diren etorkizuneko gastuak, ekonomia- eta ondare-oreka berrezartzeko espedienteak etab.

Oroitidazkian etorkizuneko gastuari buruz jasotako aurreikuspenak prezio korrontetan aurreikusi diren ordainketa-fluxuei dagozkie; hau da, kontuan hartu da etorkizuneko inflazioaren eragina. Trafikoaren, KPlaren, kontsumitutako ur metro kubikoen, sartutako hektarea kopuruaren eta abarren bila-kaerari buruzko hipotesietan oinarritutako aurreikuspenak dira.

Urte anitzeko inpaktuaren aurreikuspen hauek jaso dira oroitidazkian, 2021eko abenduaren 31n, euro korrontetan, milakotan:

(Milakoak)		
Azpiegitura	Epea	Euro korrontean
Iruña-Logroño A-12 autobia (Donejakue Bideko autobia)	2022 - 2027	383.237
Iruña-Jaka A-21 autobia (Pirinioetako Autobia)	2022 - 2039	553.800
Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriak (1. fasea)	2022 - 2036	314.204
Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriak. 1. fasearen zabalpena	2022 - 2044	392.168
Guztira		1.643.409

Etorkizuneko zama zenbatetsia urteko ordainketen aurreikuspenei dagokie, 2022ko urtean (hurrengo urtean) izan ezik, hor doituta baitago 2021eko kontsumo eta trafiko datu errealekin eta tarifa eguneratuekin.

Azpiegitura horiei buruzko aurreikuspenak "urte anitzeko erreserba" moduan erregistratzen dira kontabilitateko informazio sisteman, Pirinioetako Autobiari buruzko aurreikuspenak izan ezik.

Aurreikuspen horien iturriak ez dira homogeneousak eta ez daude eguneraturik:

a) Donejakue Bideko autobien etorkizuneko zama 2005eko apirilaren 11ko Gobernu Erabakian jasotako zenbatespena da. 2027ra arteko aldirako daude erregistraturik, baina kontratuak 2032ra arte irautea aurreikuspenak dira.

b) Pirinioetako Autobiaren etorkizuneko zama zenbatetsia ez da gobernu erabaki batetik atera, baizik eta kontzesiodunaren birfinantzatzeko prozesu baten ondorioz 2017an berrikusitako PEFetik, baina PEF hori ez da kontratuan sartu.

⁸ HAC/820/2021 Agindua, uztailaren 9koa, zeinaren bidez aldatzen baitira Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra, apirilaren 13ko EHA/1037/2010 Aginduaren bidez onetsia, eta sektore publikoan urteko kontu bateratuak egiteko arauak, uztailaren 18ko HAP/1489/2013 Aginduaren bidez onetsiak.

c) Nafarroako Ubidearen lehen faseko eremu ureztagarrien etorkizuneko gastuaren aurreikuspenak 2012ko apirilko gobernu erabaki batean dagoen zenbatespenari dagozkio.

d) Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarrien lehen fasearen zabalpeneko gastu aurreikuspenek ekitaldiaren itxieratik hurbilenerako berrerekatze ekonomikoan onetsitako eredu ekonomikoan dute jatorria, baina ez da kontuan hartu BEZa, nahiz eta NFKAk hura ere ordaindu behar duen. 2022-2044 aldirako etorkizuneko gastu-konpromisoen zenbatekoa, 2021ean ondorioak dituen azken PEFaren arabera (bosgarren berrerekatzeari dagokion PEFaren arabera), 478,89 milioikoa da, BEZa barne. Behar baino 86,72 milioi gutxiagoko balorazioa egin da. Gobernuaren 2022ko martxoaren 30eko Erabakiaren bitartez proposatu da igoera orokor bat onestea, zenbait sektoretako kontratu-aldaketaren eta dagokion BEZaren ondorioz.

Zenbatespen horietarako kalkuletan ez dira kontuan hartu BEZ tasen geroagoko eguneratzeak. Beraz, egungo errealitateak bestelako zenbatespena eskatzen du.

Etorkizuneko gastuen aurreikuspena egiteko, egungo balioa hartu behar da, euro konstantetan, ekitaldi bakoitzeko itxiera datan, kalkulu eguneratua eta zifra hori baldintzatzen duten aurreikuspenetara doitua eginez. Eragiketa horien kontabilizazio eta finantza-informazio egokiek aukera emanen lukete etorkizuneko jarduketan aurreikuspenetan kontabilitateko informaziotik ateratako datu ekonomiko-finantzarioak erabiltzeko.

2.4. AURREKONTU-EGONKORTASUNA ETA ITZALEKO BIDESARIAK DEFIZITEAN DUEN ERAGINA

Beste helburu batzuen artean, kontabilitate nazionalaren esparruan eragiketa hauen tratamendua egin ahal izateko erabiltzen da formula hau, eta hala aitortzen da berariaz bideragarritasun azterketetan.

Aztertutako kontzesioek ez dute tratamendu berdina izan kontabilitate nazionalan. Pirinioetako Autobiako eta Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarrien lehen faseko kontzesioak aktibo publikotzat sailkatu ditu Kontu Nazionalen Batzorde Teknikoak, eta kontabilitate nazionalan inbertsioa erregistratu da finantza-eredu bati jarraituz amortizatzen den pasibo baterako abonuarekin.

Ez dago analisirik Estatuko agintaritza eskudunak erabilitako arriskuen transferentziari buruzko irizpidearen interpretazioaz, ezta organo horren dokumenturik ere kontu nazionalako tratamendu desberdina justifikatzen duenik.

Honako hau izan da finantzaketa ahalmenaren/beharraren gaineko eragina, milioitan, kontzesioaren hasieratik:

Urtea	Finantzaketa ahalmenaren eta beharraren arteko doitzea milioitan					Guztira
	Donejakue Bideko autobia	Pirinioetako Autobia	Nafarroako Ubidea 1. fasea	Nafarroako Ubidea 1. fasearen zabalpena		
2007	Ez da doitu	-	(17,7)	Ez da doitu	(17,7)	
2008	Ez da doitu	-	(52,5)	Ez da doitu	(52,5)	
2009	Ez da doitu	(2,0)	(3,9)	Ez da doitu	(5,9)	
2010	Ez da doitu	(83,0)	(31,4)	Ez da doitu	(114,4)	
2011	Ez da doitu	(117,3)	(22,3)	Ez da doitu	(139,5)	
2012	Ez da doitu	1,7	1,4	Ez da doitu	3,1	
2013	Ez da doitu	1,2	1,5	Ez da doitu	2,7	
2014	Ez da doitu	1,4	1,7	Ez da doitu	3,1	
2015	Ez da doitu	1,6	1,8	Ez da doitu	3,4	
2016	Ez da doitu	1,8	2,0	Ez da doitu	3,8	
2017	Ez da doitu	2,0	2,2	Ez da doitu	4,2	
2018	Ez da doitu	2,2	2,4	Ez da doitu	4,7	
2019	Ez da doitu	3,2	2,7	Ez da doitu	5,9	
2020	Ez da doitu	3,5	2,9	Ez da doitu	6,5	
2021	Ez da doitu	3,9	3,2	Ez da doitu	7,1	

(*) Baliteke doitze horiek bat ez ezortzea Nafarroako Kontu Orokorretako ekitaldiekin, Estatuko taulak direlako, jada itxitako ekitaldietako doitzeak dituztenak.

Iturria: Estatuak igorritako taula, Kontabilitate Nazionalaren Atalak emana.

Eraikuntza urteetako doitzeak, bai Pirinioetako Autobian bai Nafarroako Ubidearen lehen fasean, badu eragina urte horietako finantzaketa beharrean eta zorpetzean. Autobiarako 202 milioiko zorra zenbatu zen, eta Ubidearen lehen faserako 135 milioiko zorra zenbatu zen. Beraz, teorikoki NFKAK obra hori (gastuen 6. kapitulua) 337 milioitan egin eta beste horrenbesteko zorra (diru-sarreraren 9. kapitulua) egin balu bezala da.

Ustiapen urteetako doitzea positiboa da. Finantzaketa ahalmena handitzen du, hau da, defizita murrizten, eta, aldi berean, egotzitako zorra amortizatzen du harik eta guztiz kitaturik egon arte konzesio-aldiaren azkenean.

Urtea	Zorpetzea, milioitan				Guztira
	Donejakue Bideko autobia	Pirinioetako Autobia	Nafarroako Ubidea, 1. fasea	Nafarroako Ubidea, 1. fasearen zabalpena	
2007	Ez da doitu	-	17,7	Ez da doitu	17,7
2008	Ez da doitu	-	70,2	Ez da doitu	70,2
2009	Ez da doitu	2,0	74,1	Ez da doitu	76,1
2010	Ez da doitu	85,0	105,4	Ez da doitu	190,4
2011	Ez da doitu	202,3	127,7	Ez da doitu	330,0
2012	Ez da doitu	200,5	126,4	Ez da doitu	326,9
2013	Ez da doitu	199,3	124,9	Ez da doitu	324,2
2014	Ez da doitu	197,9	123,2	Ez da doitu	321,1
2015	Ez da doitu	196,4	121,4	Ez da doitu	317,7
2016	Ez da doitu	194,6	119,3	Ez da doitu	313,9
2017	Ez da doitu	192,6	117,1	Ez da doitu	309,7
2018	Ez da doitu	190,4	114,6	Ez da doitu	305,0
2019	Ez da doitu	187,1	112,0	Ez da doitu	299,1
2020	Ez da doitu	183,6	109,0	Ez da doitu	292,6
2021	Ez da doitu	179,7	105,8	Ez da doitu	285,6

Iturria: Estatuak igorritako taula, Kontabilitate Nazionalaren Atalak emana.

Beraz, Pirinioetako Autobiak eta Nafarroako Ubidearen lehen faseak zuzeneko eragina dute NFKA-ren defizitean eta zorrean, aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuak betetzeari dagokionez.

3. GEHIGARRIA. APLIKATZEKO DEN ESPARRU JURIDIKOA

Jarduketa hauei (kontzesioen kudeaketari) aplikatzekoa den esparru juridikoa honako hau da:

- 10/1998 Foru Legea, apirilaren 13koa, kontratu publikoei buruzkoa.
- 6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, kontratu publikoei buruzkoa.
- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa.
- 13/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.

Autobien araudia:

- 21/2001 Foru Legea, urriaren 18koa, Iruña-Logroño errepidea eraiki, ustiatu eta finantzatzekoa.

Ubidearen araudia:

- 7/1999 Foru Legea, martxoaren 16koa, Nafarroako Foru Komunitateko ureztapen planean sartutako ureztapenetako jarduketa eta obrei buruzkoa.
- 1/2002 Foru Legea, martxoaren 7koa, nekazaritza azpiegiturei buruzkoa.
- 12/2005 Foru Legea, azaroaren 22koa, Nafarroako Ubideak ureztatuko duen eremuko interes orokorreko azpiegituren eraikuntzari eta ustiapenari buruzkoa.

